

HITZETIK IRAGANERA: GERRA ZIBILA DURANGON AHOZKO ITURRIEN BIDEZ

Aro Moderno eta Garaikideko gizarteen arkeologia



Iturria: Egilearen argazkia.

EGILEA: OLATZ FERNANDEZ DE AGIRRE GEBARA

HISTORIA GRADUA (4. maila)

TUTOREA: JOSÉ RODRÍGUEZ FERNÁNDEZ

2018-2019 ikasturtea

GEOGRAFIA, HISTORIAURREA ETA ARKEOLOGIA SAILA

Lanaren laburpena:

Historia aztertzeko iturri anitz daude: materialak, idatziak, numismatikoak, epigrafikoak, ikus-entzunezkoak, ahozkoak eta abar. Tamalez gure esparru geografikoan, eremu anglosaxoian ez bezala, sarri lehentasuna ematen zaie iturri bibliografiko zein materialei, besteak bigarren maila batean geratu izan direlarik tradizionalki. Bazterrean utzitako iturri horietakoak dira ahozkoak, subjektiboegiak direlakoan. Baina egia al da hori? Eta izatekotan... ez al dira hala ere erabilgarriak? Idatzizkoak ere ez al daude idazlearen *psique*-aren menpe, materialak ikertzaileen galderen influentzia jasotzen duten bitartean?

Azterlan honen helburu nagusia ahozko iturriak era intentsiboan lantzea da, honen inguruan gure ibilbide akademikoan zehar geratutako hutsunea betetze aldera. Ildo honetan metodologiari arreta berezia eskaintzea ezinbestekoa izango da, noski. Gainera goiko galderari erantzuten saiatuko gara. Iturri hauen berezitasuna besteekiko argia da, informanteak pertsona biziak baitira, eta beraz, iragankorrak. Lehen eskuko informazioa hauekin batera galtzen ari da eta beharrezkoa da hori gertatu aurretik iturri hauek balioztatzea, era egokian bildu eta lantzeko. Gainera gizatasunak interesa pizten du jendean, gertutasunagatik ziurrenik. Horrek berebizikoa den gizarteratzea egiteko aukera bikaina opa digu, askotan ikerlan guztien helburu teorikoa den hau herren geratzen baita errealitatean.

Bestalde, ahozko iturriak ikertzeko marko historikotzat Gerra Zibila aztertuko dugu euskal lurraldeetan, Durangon zehatzago esanda. Bertan jazotako lau egunetako bonbardaketak azalduko ditugu, baina 1937ko martxoaren 31koan zentratuz bereziki. Horretarako konfliktoaren arkeologiaren marko teorikoa landuko dugu iturri idatzien bidez, jakina, baina ahozko iturriak izanez betiere gure zutarria. Horretaz gain, iragana denona denez gero, historiografiak tradizionalki baztertutako taldeei protagonismoa bueltatzen saiatuko gara, batez ere emakumeei dagokienean, arkeologia feministari jarraituz. Izan ere ikerlarion ardura izan behar du mugak eta aurreiritziak baztertuz zentzu kritikoa bultzatzea problematika berriak aztertu ahal izateko, horrela ahaztutakoan memoria berreskuratuz eta landuz.

Bukatzeko, Gradu Amaierako Lan (GRAL) honen ideia nagusiak ondorioetan jaso eta laburtuko ditugu. Gainera azken gogoetak egiteko lekua ere horixe izango dugu. Bibliografiaren ostean eranskin atal bat gehituko dugu, ikerketan jasotako materialen

lagin batekin; hala nola informanteen fitxak, irudiak, marrazkiak eta abar biltzen dituen.

Hitz gakoak: Ahozko iturriak, Bonbardaketa, Durango, Emakumeak, Gerra Zibila.

Eskerrak: Ikerketan lagundu duten guztiei, bereziki Gerediaga Elkarteko Jon Irazabali, GRAL honen tutore izan den José Rodríguez Fernándezi eta parte hartu duten informante (eta hauen senide) guztiei: Karmele Zamalloa, Pedro Maria Monasterio, Juanito Gallastegi, Iñaki Gorritxategi eta M^a Carmen Areitioaurtena.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	1
2. Metodologia eta marko teorikoak: Ahozko iturriak, konfliktoaren arkeologia, eta arkeologia feminista	2
2.1 Azterketaren ibilbide metodologikoa:.....	2
2.2 Ahozko iturrien garrantzia:.....	4
2.3 Konfliktoaren arkeologia:.....	6
2.4 Arkeologia feminista:.....	7
3. Testuinguru historikoa: Gerra Zibila Durangon	8
3.1 Gerraren hasiera euskal lurretan:	8
3.2 Gerraren bigarren fasea euskal lurretan:	10
3.3 Durangoko bonbardaketak:	12
3.4 Gerraren amaiera euskal lurretan:	14
4. Ahozko iturrien errelatoa:	15
5. Ondorioak	21
6. Bibliografia	23
7. Webgrafia	25
8. Bideoak	25
ERANSKINAK	1
Galderen gidioa:	1
Informanteen fitxak:	2
Informanteek eskainitako materialak:.....	22
Durango, atzo eta gaur:	23
Bonbardaketaren argazkia:	28
Oroimen ekitaldia:	29
CD-ko audio eranskinen zerrenda:	32

1. Sarrera

Arkeologiak duela asko gainditu zuen bildumazalekeria, baita monumentaltasun grina ere. Zorionez, orain materialak ez dira euren ikusgarritasun edo balio ekonomikoaren arabera berreskuratzen, baizik eta eskaini diezaguketan informazioaren arabera. Iturriak dira, alegia; liburuak edota arkitektura bera ere, beste askoren artean, izan daitezkeen bezalaxe. Haiei guztiei esker iraganaren zenbait alderdi ezagut ditzakegu, beste asko, tamalez, inoiz berreskuratuko ez ditugun bitartean. Inolako bibliotekatan, eraikinetan edota indusketetan sekula arrastorik utziko ez duen adibide horietakoa da ahotsa. Ahotsak artekaria behar du denboran zehar irauteko, berdin Erdi Aroko luma zein egungo grabagailua, baina batez ere INTERESA. Ez dago dudarik *Back to the Future* filmeko DeLorean kotxea bagenu munduko historialari, arkeologo eta antropologo guztiak (beste askoren artean) lehiatuko zirela bertan sartu eta iraganeko pertsonaiak elkarrizketatzeko. Baina gaur egunari bagagozkio jakin min hori galdu egiten da, eta harekin, berreskura ezin daitezkeen iturri baliagarria.

Gaurkotasunaren historikotasun eza ez da iturri mota hau mespretxatzeko erabili den aitzakia bakarra. Izan ere egiten zaion kritikarik ohikoena subjektiboa izatearena da. Ezin da ukatu gizakion memoria ez dela perfektua, hutsuneak, “kutsatzeak”, omisioak, baita manipulazioak ere arazo izan daitezkeelarik. Baina hain mitifikatuak dauden iturri idatziek ere ez al dute ba objetibotasun falta bera? Idazlearen interesak ez dira desagertzen tintaz paperean idazterakoan, kontrakoa esan genezake, hein handi batean iraunkor bihurtzen baitira. Material arkeologiko bera ere ikertzailearen galdera eta interpretazioen menpe dago (baita aurrekontuen menpe ere, noski). Are gehiago, ez genuke subjektibotasuna gauza txarra bailitzan baztertu behar, hau aztergai bihurtu baizik, betiere kontu handiz identifikatuz eta ikertuz.

Laburbilduz, lehen eskuko iturri hauek balioztatze aldera eta hauek biltzeko eta ezagutarazteko garrantziaz kontzientziatu nahian, kasu aplikatu batean (Gerra Zibila Durangon, hain zuzen ere) landuko ditugu. Horretaz gain saiatuko gara beste iturriekin kontrastatzen aipatutako mugen irismena aztertzeko. Lehendabizikoz landuko dugun iturri mota izanik, metodologiari arreta berezia eskainiko diogu. Bukatzeko, diskurtso tradizionalak gainditu nahian baztertuak izan ohi diren taldeetan jarriko dugu arreta.

Kasu honetan lantzen dugun kronologiak behartuta adineko jendearekin egingo dugu lan, behin egon daitezkeen trabak (memoria edota entzumen arazoak, adibidez) igarota oso interesgarria izango dena. Izan ere, esan bezala, normalean historiografiak bazterten duen taldeetako bat da, garaian umeak zirenak (beste ahaztutako protagonistetako adibide, hauek ere). Gainera saiatuko gara azken aldian gutxika-gutxika gure ikerketa arloan sartu den eta guztiz beharrezkoa den feminismoa abiapuntutzat hartzen, ahal den heinean elkarrizketetatik emakumeen begirada atera eta aztertzeko. Beraz Gerra Zibila Durangon markotzat hartuta, ikuspuntu feminista zutarri izanda, ahozko iturrien aberastasun eta mugak lantzea izango dugu helburu.

2. Metodologia eta marko teorikoak: Ahozko iturriak, konfliktoaren arkeologia, eta arkeologia feminista

Atal honetan lan hau aurrera eramateko erabilitako metodologia azalduko dugu, antolatzeke era, informazioa lortzeko bideak, erabilitako tresna zein materialak eta abar aztertuz. Bukatzeko, proiektuaren oinarrian dauden marko teorikoetan sakonduko dugu.

2.1 Azterketaren ibilbide metodologikoa:

Azterlan hau egiteko hasierako pausua antolaketa izan da, tutorearekin lehen eskema bat adostuz. Horren ostean lanaren muina diren informanteak bilatzea zen garrantzitsuena. Horretarako Gerediaga Elkarteko Jon Irazabalen laguntza ezinbestekoa izan da, bost kontaktuetatik lau eskaini baitzizkigun bibliografia aberats eta zehatzaz gain. Momentu horretatik aurrera bi lan eremu bereizi genituen. Bata, iturri tradizionalekin lotua, bibliotekan zein gero ikusiko dugun “¿Qué debemos saber antes de hacer una entrevista? Jornada formativa sobre historia oral” delako hitzaldian dokumentazioa biltzea eta antolatzea izan zen. Ahozko iturriei buruzko informazioa lortzeko izandako trabak aurrerago ikusiko ditugu, hurrengo puntuan. Momentuz azter dezagun bibliografia plano kritikotik. Argi dago Gerra Zibilaren inguruan informazio oparoa dagoela, bai orokorrean baita gaika edota esparru geografikoaren arabera. Baina Gerra Zibila euskal lurraldetan azterten duen bibliografian ere zaila da Durangoko bonbardaketaren inguruko informazioa lortzea aipamen soiletatik aparte. Horretarako liburu lokaletara jo behar dugu, zehatzagoak direnak baina urriak, gure kasuan Jon Irazabal delarik autore zentrala. Emakumeak era egokian barneratzen dituen bibliografia aurkitzea ere zaila da monografiak alde batera uzten baditugu, askoz jota pertsonaia

famatuena aipatzen direlarik (Dolores Ibarruri “La Pasionaria” kasu). Gabezia hau betetze aldera oso baliagarriak izango zaizkigu ahozko iturriak.

Ahozko iturriak izan ziren, hain zuzen ere, materialtasunaren ikuskapen bisualarekin batera bigarren esparruan (ikerketa proiektu honen landa lanean) jorratu genituen estrategiak. Lehen pausoa kontaktuekin telefonoz harremanetan jartzea izan zen, proiektua azaltzeko eta elkarrizketaren data finkatzeko¹. Behin elkarrizketak hitzartuta, hurrengo pausua materiala prestatzea izan zen. Berezkoa dirudien pauso honek berebiziko garrantzia du ikusiko dugunez, batez ere ezustekoak saihesteko. Kamera eta grabagailua hutsik eta guztiz kargatuta eramateaz gain, pila, kargadore eta memoriak ere hartu nituen. Informanteek hautatutako lekura iristean, kasu guztietan erosotasunagatik² euren etxea izan zena, grabagailua ipintzeko toki egokia bilatu nuen. Izan ere garrantzitsua da audioaren argitasunari begira kanpoko zarata gutxitzen saiatzea (kotxeak, obrak eta abar). Gainera, badaezpada ere mugikorraren ahots grabagailua aktibatu nuen, kalitate okerragoa izan arren babes kopia bat izateko. Neurri honi esker hirugarren elkarrizketa baliotsua ez zen galdu, grabagailua apurtu baitzen.

Galderei dagokienean, irekia izateko beharra zegoen, elkarrizketatu bakoitzak informazio berezia eskaintzen baitu eta, beraz, informazioa ez galtzeko askotan detaileetan sakondu behar zelako (“entzute aktiboa”). Hala ere ikerketa lana denez gero eskema bat jarraitu nuen solasa bideratze aldera, gidoia argia izan zedin saiatuz (Ikusi 1. Eranskina). Honen inguruan aipatu behar da galderak ez direla aurretiaz bidali behar erantzunak ez baldintzatzeko, baina lehenengo informantearen adin nagusia dela eta, bere semeak eskatuta, salbuespena egin nuen elkarrizketa aurrera eramate aldera. Kasu honetan zein azkenekoan informanteen senideak (semea, esan bezala, lehenengoan eta biloba bestean) elkarrizketetan egon ziren. Amaitzean, argazki bat eskatzen nien testigantzei aurpegia jartze aldera. Gehienek onartu egin zuten, eranskinetan ikus dezakegunez. Gainera garaiko argazki edota dokumentuen inguruan ere galdetu nien

¹ Tamalez duela 82 urteko bonbardaketen zauriak sakonegiak ziren 2019ko lore eskaintza jasoko zuen Mari Ardanazarentzat eta ez zuen eskaintza onartu.

² Erosotasuna behin eta berriz azpimarratzen dugun kontzeptua da, oso garrantzitsua delako. Alde batetik laguntza eskaintzen diguten pertsonekin lan egiten dugulako, askotan istorio gogorrek kontatuz, eta hau ahalik eta jasagarrien egin behar diegulako. Bestetik eroso dagoen elkarrizketatu batek (lekua, inguru, hizkuntza) informazio oparoagoa eskaintzen duelako.

diskurtsoa eta materialtasuna lotzeko nahiarekin (Ikusi 8. Eta 9. Eranskinak). Ondoren, grabazioak gorde nituen, babes kopiak eginez, baita landu ere 4. atalean ikusiko dugun bezala, informazio aipagarriena identifikatu eta horretan sakontzeko (Ikusi 2., 3., 4., 5., 6. eta 7. Eranskinak).

Aurreratu dugun bezala, bisita teknikoak ere egin genituen³. Izan ere oso garrantzitsua da honelako ikerketa bat aurrera eramateko materialtasuna zuzenean ezagutu eta aztertzea, batez ere bibliografiak zein ahozko iturriek eskainitako informazioa hobeto ulertu, kontrastatu eta egungo hiri-paisaian testuinguruan jarri ahal izateko. Horretarako bonba-hegazkinek egindako bide berdinak jarraitu nituen, arreta berezia jarritz hondamendia jasan zuten kale eta eraikin nagusietan, bereziki iturrietan azpimarratutakoetan. Egungo egoera grafikoki dokumentatu nuen argazkien bitartez, garaian materialtasunak jasotako kalteekin alderaketa egin ahal izateko (Ikusi 10-20. Eranskinak). Oharrak ere hartu nituen gerora eranskinetan ikus daitezkeen dokumentuen eraikuntzan laguntzeko. Bukatzeko, bonbardaketan urteurrenean Durangon ospatu zen ekitaldia (lore-eskaintza) ere dokumentatu nuen, horrelako gertakari baten aurrean memoria nola lantzen den aztertze aldera (Ikusi 23-27. Eranskinak).

2.2 Ahozko iturrien garrantzia:

Ahozko historia, kontzeptuak berak argi uzten duenez, historia da. Grabagailu bat izatea (ezinbestekoa izanda ere) ez da aski horretarako, formazioa behar da. Tamalez gure eremuan ahozko iturriak ez dira balioztatzen behar luketen mailan, Ipar Amerikan, berriz, gertatzen den bezala. Hala ere noizean behin zorioneko salbuespenak aurki ditzakegu. Bartzelonan, adibidez, *Historia, Antropologia y Fuentes Orales* izeneko aldizkari espezializatua publikatzen da. Gainera González-Ruibal bezalako adituek ahalegin kontzientea egin dute mundu anglosaxoian arrakasta izandako diziplinak hedatzeko (González-Ruibal, 2003). Atal hau bera ere salbuespen horietako bateko informazio baliagarriari esker osatu ahal izan da, Pedro Oiarzabal hizlariak eskainitako “¿Qué debemos saber antes de hacer una entrevista? Jornada formativa sobre historia oral” hitzaldiari esker hain zuzen ere.

³ Juanito Gallastegiren laguntza ordainezina izan nuen honetan. Horretaz gain laugarren elkarriketatutako lekukoa izango zena aurkitzen ere lagundu zidan, Iñaki Gorritxategi alegia.

Ahozko historia⁴ XX. mendeko 70. hamarkadaz geroztik hedatu zen, batez ere herri anglosaxoi eta italiarretan. Gai korapilatsua izan arren, aditu gehienak ados daude elkarrizketa bat iturri historiko bihurtzen duten ezaugarrietan: lehenengo eta behin grabatua izatea, denboran zehar mantentze aldera; bigarrenik banakakoa izatea, batzuetan egoeraren arabera talde txikietan⁵ izan daitekeen arren; hirugarrenik zuzendua izatea, helburu zehatz batekin; laugarrenik zuzeneko informazioa izatea, lehen mailakoa; eta, bukatzeko, garrantzia historikoa izatea. Hala ere kontuan izatekoa da zeharo interdiziplinarra dela, beraz historialariez gain filologo, etnologo, psikologo eta abarrentzat ere baliagarriak izan daitezkeela elkarrizketak, helburuaren arabera metodologia aldatuko bada ere, noski.

Ezin da ahaztu pertsonekin lan egiten duela diziplina honek. Horrek bi ondorio nagusi dakartza: alde batetik, gure memoria ez dela perfektua, are gutxiago denbora dezente pasa bada edota gertakizun traumatiko baten inguruan bagabiltza, eta beraz beste iturri batzuekin kontrastatzea berebizikoa dela; bestetik, objektuekin baino etika akademiko zorrotzagoa mantendu behar dela. Ildo honetan “Belmont printzipioak” ezagutzea ezinbestekoa da; errespetua⁶, minik ez egitea⁷ eta justizia, alegia. Horretarako oso garrantzitsua da elkarrizketatu beharreko pertsona proiektuaz era ulergarri eta osoan informatzea eta honek kontzienteki onartzea edozein momentutan atzera bota daitekeela jakinda. Kontuan izan behar da ikerlariontzat grabaketa bidez egitea komenigarria izan arren, omisioek bezala gorputz hizkuntzak ere informazioa ematen baitigu, informante asko kamerek urduritzen dituztela. Hauek eroso egotea da garrantzitsuena. Bukatzeko, behin elkarrizketa prestatu ostean (galdera itxiak/irekiak izango diren erabaki, materiala prestatu...) eta egin ostean ez da ahaztu behar historia gizartearentzat egiten dela eta, beraz, emaitzak hedatu behar direla. Honetan ere elkarrizketatutakoen eskubideak

⁴ Diziplina gisa, izan ere ahozko tradizioak betidanik izan dira, nahiz eta balioetsiak, idatzita ez egoteagatik.

⁵ Aurreko atalean ikusi dugun bezala, batzuetan senide, lagun edota etxeko langileek elkarrizketetan egon nahi dute, batez ere informantea adinekoa bada. Elkarrizketatua bakarrik egotea komenigarriagoa den arren haren erantzunak baldintzatuak ez izateko (adibidez lotsagatik), lehentasuna elkarrizketa egin ahal izatea da, ez testuinguru “perfektua” lortzea.

⁶ Aurreko atalean ikusi dugun argazkiak ateratzeko eta grabatzeko baimena eskatzea, adibidez.

⁷ Batzuetan elkarrizketak terapeutikoak izan daitezkeen arren, kontrako kasua ere gerta liteke. Ikusi Mari Ardanazaren adibidea.

errespetatu behar dira, publikazioaren inguruko informazioa emanez eta baimena eskatuz, ahal bada inolako murrizketarik⁸ gabe gizarteratzeko.

2.3 Konfliktuaren arkeologia:

Arkeologia zabala da oso, bere baitan kronologia, geografia, metodologia edota diziplina ugari aurki ditzakegularik. Tradizionalki gizarateak arkeologia urruneko garaiekin harremanetan jarri arren⁹, aztergai dugun gaia iragan gertuko arkeologiari dagokio, konfliktuaren arkeologiari hain zuzen ere, Gerra Zibilaren arkeologiari zehatzago esanda. Aurreko garaiak aztertzeko erabilitako metodologia antzekoa erabiltzen da, baina materialtasuna laguntzeko iturriak ugariagoak izanda, ez soilik kantitatean baizik eta dibertsitatean ere, hala nola ikus entzunezko iturriak edo ahozkoak. Gertutasun kronologikoaren beste ondorio nabari bat garaiko protagonistekiko dugun harremana da, askok ezagutzen edo ezagutu izan ditugulako, eta horrek publikoan interesa sortzen du. Geografikoki ere hurbil ditugu konfliktuaren zantzuak, gertuegi batzuetan. Izan ere hori dela eta zaila egiten zaigu konturatzea guretzat eguneroko objektu bat den hori (bala markak dituen pareta bat edota frankismoaren¹⁰ monumentu bat) egiatan ondare historikoa dela. Kontuan izan behar da aztarna batzuk ikusgarritasuna helburu izan duten bitartean (Erorien Harana kasu) beste batzuk berariaz ezkutatu direla (hots, fosak) baita ahaztu ere (bataila-eremuak). Honen guztiagatik eta jazoeraren biolentzia mailagatik, Gerra Zibila gai tirabiratsua da, askotan hau lantzen duten arkeologo eta historialariei interes politikoek gidatuak izatea leporatu zaielarik. Baina gizateriaren kontrako krimenak izan dituen gerra bat, askatasunaren eta demokraziaren aurkako altxamendu faxista batek eragina, ez al da berez politikoa¹¹?

⁸ Batzuetan informanteek elkarrizketa soilik data zehatz baten ondoren (euren heriotza, adibidez) publikatzea baimentzen dute.

⁹ Espainiar Ondare Historikoaren legeak ere ez du aurreiritzi honen kontra asko lagundu hainbat artikulutan 100 urteko antzinakotasuna baino gehiago duen ondarea besterik ez baitu kontuan hartzen historikotzat. Arkeologia lanak egiteko orduan ere hau traba argia da (B.O.E).

¹⁰ Gerra Zibilaren arkeologia estuki lotuta dago diktadurarenarekin.

¹¹ Egia esan edozein jazoera interpretatzean jarrera politikoa hartzea ezin da ekidin, González-Ruibalek dioen bezala: "... incluso hablar de los palacios etruscos implica una posición política (porque en ellos podemos ver el progreso del ingenio humano o el surgimiento de las oligarquías y la explotación social)..." (González-Ruibal, 2016, 32 or.).

Ezin da konfliktoa ekidin bi bandoen jokaera berdintzen saiatuz, batzuk hala nahi arren; egiarekiko, historia den zientziarekiko eta batez ere gertaeren protagonista (eta biktima) izan zirenekiko errespetu falta baita. Errepublikar erregimen demokratiko, legitimo eta legala zen¹², frankismoa ez bezala, eta hori kontuan izanda ikertu eta gizarteratu behar da, zientziaren lana ez baita deskriptiboa esplikatiboa baizik, historiaren kasuan horrek ekintzen ardurak aztertzea dakarrelarik. Konfliktoaren arkeologia gertaerak ikertu eta ezagutarazteko baliagarria da, batzuk, esan bezala, berariaz ezkutatuak izan baitira, edo manipulatuak, lan honetan zehar ikusiko dugunez. Baina are garrantzitsuagoa da gizartearen alde egiten duen lana, egia ezagutaraziz. Herrialde batzuetan aztarna arkeologikoak epaitegietan erabiliak izan dira besteak beste gerra krimenak ordainarazteko¹³ (González-Ruibal, 2016, 23-37 or.).

2.4 Arkeologia feminista:

Arkeologia feministaren sorrera XX. mendeko 80ko hamarkadan kokatu behar dugu, Conkey eta Spector-ek era ofizialean lehenengoz feminismoa arkeologian sartu zutenean¹⁴. Baina zertan datza? Historian zehar egondako emakumeei buruzko informazioa biltzean? Ez, genero arkeologia mugatzen da horretara, arkeologia feminista haratago baitoa. Hain zuzen ere horregatik da popularragoa lehena, hain erradikala ez izateagatik eta ustezko “neutraltasuna” gordetzeagatik. Izan ere arkeologia feministak konpromiso politiko sendoa du, orainean eragin nahi duen heinean. Arkeologia egiteko era tradizional matxista aldatu nahi du, emakumeak historiaren subjektu bihurtu, problematika berriak sortu eta, batez ere, zentzu kritikoa bultzatu (Cruz, 2010). Hein honetan arkeologia feministaren lorpen handienetarikoa generoa bera biologikoa den ideiarekin amaitzea izan da, eraikuntza sozio-kultural eta historikoa den heinean. Horrek genero rolak zalantzan jartzea ekarri du, eragin handia duena materialtasuna interpretatzerako orduan (González-Ruibal, 2003, 128-129 orr.). Gainera

¹² Horrek, noski, ez du esan nahi bando honek gerran egindako gehiegikeriak zuritu behar direnik.

¹³ Espainian 1977ko amnistia legeak frankismo garaiko krimenen ardura legala ezabatu zuen. Hala ere “Querrela Argentina” famatuko parte hartzaileek defendatzen dutenez, gizateriaren aurkako krimenak ez dira inoiz preskribitzen.

¹⁴ Izan ere bai historian baita antropologian ere feminismoak lehenagotik izan zuen eragina.

generoa berrinterpretatze honetan ere kokatu beharko genuke *queer*¹⁵ arkeologia, arkeologia feministaren garai berean sortua (Voss, 2000, 184 or.). Izan ere ezin da ahaztu arkeologia ez dela inuzentea, objetibotasun planta guztien atzean, gizakiak garenez gero, gure galdera eta erantzunak baldintzatzen dituzten faktoreak daudela; adibidez, gizarte bateko genero diskurtsoa edota egilearen beraren jaioterri, genero, klase, ideologia eta abarra. Egiatan objetibotasuna lortzea ezinezkoa dela aitortzea da honetara gehien hurbiltzeko erarik egokiena, prozedura zorrotzak bultatuz; ironikoki politikoki konprometituak dauden korronteak¹⁶ “neutralak” omen direnak baino zehatzagoak direlarik. Ildo honetan aipatzekoa da tradizionalki diziplina honetan jardun duten gehienak klase erdi-altuko mendebaldeko gizon zuriak izan direla (Cruz, 2010).

Honek guztiak, 2.1.atalean aipatu bezala, emakumeon hutsunea utzi du kontakizun historikoan, arkeologia feministak bete nahi duena, azaldu bezala. Gure kasua ez da salbuespena eta horregatik ezinbestekoa dugu ikerlariak garen heinean Durangoko bonbardaketetako emakumeen ahotsak berreskuratzea, ez soilik ikusgarritasuna emateko baizik eta baita izandako protagonismoa aitortzeko ere. Gaur eguneko arkeologian, beste esparruetan bezalaxe, ikuspuntu feminista ezin da lan monografikoetara mugatu. Emakumeekiko¹⁷ justizia egitea ez da aukera pertsonal bat, denon ardura baizik.

3. Testuinguru historikoa: Gerra Zibila Durangon

3.1 Gerraren hasiera euskal lurretan:

1936ko uztailaren 17an hasi zen Espainiako Bigarren Errepublikaren aurkako altxamendu militarra Ceuta eta Melillan, Francisco Franco Bahamonde jeneralaren gidaritzapean. 18an Emilio Mola jeneralak gerra egoera aldarrikatu zuen Iruñean, honen

¹⁵ Heteronormatibitatearen kontra joan nahian *queer* kontzeptuak gutxiengoak diren sexualitateak beregain hartu ditu (Voss, 2000, 184 or.). Hitzaren lausotasunak, ordea, eztabaidak sortu ditu, azkena pedofiloak LGTB+ komunitatearen barruan egon behar liratekeen inguruan.

¹⁶ Arkeologia feminista ez da, noski, kritikoa den eta konpromiso politiko sendoa duen arkeologia mota bakarra. Horren adibide dugu, hots, arkeologia indigenista, arkeologia feministarekin harremana daukana, sustrai berak izateagatik: aurreiritzi guztien kontra joatea.

¹⁷ Emakumeekiko zein tradizionalki nahita edo nahigabe baztertuak izan diren guztiekiko justizia, noski, hala nola Europaz kanpokoekikoa, *queer*-ekikoa, ume zein agureekikoa eta abar luze bat.

aginduz Camilo Alonso Vega koronelak hurrengo egunean Gasteizen ere berdina egingo zuelarik. Hilaren 21. egunean Loiolako kuarteleko militarrek ere batu ziren Donostiako komandante militar zen León Carrasco Amilibia koronelari jarraituz, baina aste bat geroago errenditu behar izan zuten. Bilbon legezko gobernuari fidel ziren Ordena Publikoko Indarrei zein Guardia Zibilari esker altxamenduak ez zuen arrakastarik izan (Irazabal, 2012, 21 or.). Kontuan izan behar da Araban eta batez ere Nafarroan (karlismoaren kausaz), Gipuzkoan eta Bizkaian ez bezala, eskuindarrak zirela nagusi (De la Granja, 2007, 428 or.). Horri esker Molak, “zuzendaria” ezizenez (Irazabal, 2012, 21 or.), Errepublikaren aurkako kolpea prestatu ahal izan zuen, gobernuaren okerraz baliatuz, hura izan baitzen (hain zuzen ere konspirazio baten beldurrez) botere gunetatik hainbat jeneral aldentzen saiatu zena, Franco barne (Aubert, 2006, 10 or.). Durangori dagokionean, bertako erreketek (100 inguru) Guardia Zibilaren altxamenduaren esperoan egon ziren, baina hau ez zen gertatu. Orduan, Bilboko saiakerak ere huts egin zuela jakinda, Gasteizera joateko agindua jaso zuten, baina gehienak mugan atxilotuak izan ziren. Errepublikaren aldeko elkarte politiko eta sindikalek (EAJ 8 egun geroago batu zen) defentsa komiteak antolatu zituzten eta ustezko altxatuen aldekoak atxilotzeari ekin zioten (Irazabal, 2012, 22-25 orr.).

Gerrak aurrera egin zuen. Bizkaian ordena eta erakunde Errepublikarrak nolabait mantendu ziren bitartean, Gipuzkoan hauek huts egin zuten. Horien beharrean botere “iraultzailea” agertu zen, Gipuzkoako Defentsa Batzordea delarik erakunde aipagarriena ildo honetan. Donostiako bonbardaketa nabalen ondorioz, Batzordeak hiru guda kontseilu egin zituen, Errepublikako gobernu zentralerarekin (Barruso, 2007, 654-656 orr.). Hala ere egoera ez zen luzaro mantendu, hiriburua irailaren 13an erori baitzen, Gipuzkoa ia osoa altxatuen esku utziz. Hala ere errerepublikaren aldekoak gai izan ziren “nazionalak” gelditzen Bizkaira sartu baino lehen. Horrela amaitu zen Euskadiko Gerra Zibileko lehen etapa, Gipuzkoako kanpaina hain zuzen ere (Garitaonandía eta De la Granja, 2007, 47-48 orr.).

Durangori dagokionean, ezin da ahaztu garai honetan jasan zuela lehen bonbardaketa. Irailaren 25ean, hain zuzen ere, goizeko 11ak aldera, Gasteiztik zetozen hainbat altxatuen aldeko hegazkinek lau bonba jaurti zituzten herrira: bi ferrokarrilera erori ziren, bat Marcos Unamunzaga medikuaren ortuan eta bestea Ezkurdi frontoian. Azkenak frontoiaren alde bateko pareta zeharkatu eta bertan pilotan jokatzen zebiltzan 18 eta 32 urte bitarteko 12 gizon hil eta beste hainbat zauritu zituen. Biktimak ez ziren

Durangarrak izan, baizik eta miliziano eta Gipuzkoar errefuxiatuak. Errepresalia gisa, Gazte Sozialisten “Errusia” batailoiak ziurrenik, altxatuen aldekoak izatea leporatuta preso zeuden 22 Durangarrak kartzelatik atera eta hilerrira eraman zituen, inolako auzirik gabe fusilatuz. Honetaz gain, beste Durangar eskuindar batzuk ere harrapatzen eta akabatzen saiatu ziren, lortu ez zuten arren. Antzekoa gertatu zen Bilbon, egun berean bonbardatua izan baitzen, 126 bat hilez eta 300 zaurituz. Ondorioz, miliziano eta zibilek *Altuna-Mendi* eta *Cabo-Quilates* kartzela-itsasontziak oldartu zituzten, hainbat preso akabatuz: 29 lehenengoan eta 41 bigarrean (Irazabal, 2012, 61-65 orr.). Zenbait historiagilek horrelako jardunak “biolentzia espontaneo” izendatu dituzte, nahiz eta egiatan aurreko eraso baten erantzuna izan (Barruso, 2007, 654 or.).

3.2 Gerraren bigarren fasea euskal lurretan:

Gudaren bigarren fasea, aipatu dugunez, 1936ko urrian hasi zen, Gipuzkoako frontearen galeraren ostean, eta Bizkaiaren aurkako oldarrarekin bukatu, 1937ko martxoaren 31an (Garitaonandía eta De la Granja, 2007, 24 or.). Tarte honetan aipagarriena lehen Eusko Jaurlaritzaren sorrera da. Gertaera honen garrantzia kontuan izanda komenigarria da, berbera hobeto ulertze aldera, EAJ-k Gerra Zibilean izandako jarrera aztertzea. 1936ko uztailaren 18an bertan EAJ-ko diputatuak ziren Manuel Irujo eta José María Lasate-k ohar bat egin zuten, irratitik igorri zena, baina alderdia aipatu gabe: “Sea cual sea el objetivo perseguido por los sublevados y la asistencia con que cuentan, nosotros, como demócratas, tomamos partido por la encarnación legítima de la soberanía popular representada en la República” (Barruso, 2002, 66 or.). Izan ere alderdi jeltzaleak ez zuten argi izan noren alde jarri altxamenduaren hasieran, edo komenigarriagoa ote zen neutral mantentzea “Espainiarren arteko” gudan, Luis Aranak edota Leizaolak uste zuten bezala. Ez da ahaztu behar EAJ partidu katolikoa zela, tradizionalista, Mariano Gamir Ulibarri¹⁸-ren hitzetan altxatuen printzipioetatik gertuago zegoena Errepublikakoetatik baino¹⁹, autonomia alde batean utziz gero (Núñez, 2007, 563, 569 orr.). Baina hori da gakoa, autonomiaren auziak berebiziko garrantzia zuela euskal

¹⁸ Iparreko Ejertzitotik banatutako “Cuerpo de Ejército del País Vascongado” delakoaren jenerala (Núñez, 2007, 569 or.).

¹⁹ “Fuera de la idea de autonomía, si no de independencia, sus principios son más afines al enemigo que a los nuestros: religión, propiedad, etc.” (Núñez, 2007, 569 or.).

nazionalista jeltzaleentzat, gobernu legitimoaren alde egitera bultzatuz, ikusiko dugunez²⁰.

EAJren parte hartzea gerrako lehen hiletan pasiboa izan zen eta haien aurkako errepresioa nahiko txikia, batez ere Elizarekin zein eskuindarrekin zuten harremana zela eta. Errepublikarrek jeltzaleen laguntza aktiboa behar zuten, eta horretarako nazionalismoa profitatu behar zuten banantzen zituen erlijioari buruzko auziari gailentzeko. Izan ere ez da ahaztu behar aipatu ditugun Gipuzkoako prozesu iraultzaileaz eta Bizkaiko zenbait preso eskuindarren hilketatik gain gune errepublikarrean hainbat apaiz eta erlijioso akabatuak izan zirela. Beraz, Manuel Irujo Errepublikako gobernuan ministro “sin cartera” sartzearen truk, urriaren lehen estatutua onartzera behartuta ikusi zuten haien burua Madrilan bildutako gorteek. Jeltzale batzuk aurrekari gabeko gertakizun honen kontra agertu ziren, Sabino Aranaren anaia zen Luis Aranak alderdia utzi zuelarik²¹. Edonola ere, urriaren 7an Agirre lehendakari zuen lehen Eusko Jaurlaritza osatu zen Gernikan²², Fronte Popularrarekin koalizioan, baina EAJ-k ministerio garrantzitsuenak lortu zituelarik. Honen ostean EAJ-k jarrera guztiz aldatu zuen gerrarekiko eta militarki parte hartu zuen, betiere autonomia (praktikan ia independentzia) defendatze aldera, eta ez Errepublika (De la Granja, 2007, 431-432, 437 orr.).

Bigarren fase honetan arlo militarren dagokionez gertakizunik aipagarriena Legutioko bataila izan zen. Azken helburua Gasteiz hartzea zen, horrela altxatuen komunikazioak,

²⁰ Honen froga dira, besteak beste, hurrengo aipuak. Batetik, Jose Antonio Agirre lehendakariaren hitzak 1939ko uztailean “Nuestra adhesión ha sido la libertad de Euzkadi. A la lucha no hubiéramos ido directamente, no hubiéramos ido por defender la República” (Núñez, 2007, 564 or.). Bestetik Juan Ajuriaguerrak esan bezala “Tenía la esperanza de escuchar alguna noticia que nos ahorrase el tener que tomar una decisión... La derecha se oponía ferozmente a cualquier estatuto de autonomía para el País Vasco. Por otro lado el gobierno legal nos lo había prometido... Tomamos esa decisión **sin mucho entusiasmo**, pero convencidos de haber elegido el bando más favorable para los intereses del pueblo vasco...” (Fraser, 1979, 66 or.) (Negrita nik gehituta).

²¹ EAJ-ri bidalitako gutun batean esaten zuenez ezin zuen onartu jeltzale bat “estatutu miserable” baten truk “Prieto eta Largo Caballeroren gobernu hispano eta sektarioan” sartu izana (De la Granja, 2007, 431 or.).

²² Lekuaren hautaketaren atzeko sinbologia agerikoa da, Gernika euskaldunen “hiri santua” baitzen, eta arbola haren ikurra (Mees, 2007, 532 or.).

batez ere tren bidezkoak (Sevilla-Gasteiz, Gasteiz-Irun-Berlin) moztu edo gutxienez zailtzeko. Azaroaren 30ean Errepublikaren aldekoek Etxaguen, Nafarrate eta Urrunaga okupatzea lortu zuten, baita Gasteizko urtegiak ere. Hurrengo egunean, El Pinar izeneko zuhaizti bat hartzea lortu zuten, Legutio inguratuta mantentzeko ezinbestekoa zena, baina azaroaren 2an galdu zuten berriro. Izan ere hasiera batean Murgia oldartzeko plana zegoen, baina Iparreko Ejertzitoak Eusko Jaurlaritzari agindu zion bertan behera uzteko Santanderreko ejertzitoak antolatua zuen beste ofentsiba baten kausaz, eta horrek Gasteizko errepedea moztea galarazi zuen. Ondorioz, altxatuek errefortzuak bidali ahal izan zituzten eta gudariak zein beste batailoiak garaitu. Hurrengo egunetan kanoikadak egon arren, azaroaren 18an Legutio hartzeko azken saiakerak huts egin zuen (Irazabal, 2012, 83-89 orr.).

Hirugarren fasea da gure lanerako interesgarriena dena. Izan ere hau Molak Bizkaiko fronteari jaurtitako oldarrarekin hasi zen, martxoaren 31an (Garitaonandía eta De la Granja, 2007, 48 or.), Durango bigarrenez bonbardatu zuten egunean, alajaina.

3.3 Durangoko bonbardaketak:

Goizeko 8:30ak baino pixka bat lehenago aire-alarmak jo zuen. Berehala, herritar gehienak babes-lekuetara heltzeko denbora izan baino lehen, Soriatik zetozen 5 “Savoia 81” bonbaketari eta Logroñotik zetozen 9 “CR-32” ehiza-hegazkinek bonbak jaurtitzeri ekin zioten Kurtziaga kale amaieratik Andra Mari elizarantz lehenengo eta Ezkurdi enparantzarantz ondoren, 50 kiloko 80 bonba jaurtiz guztira. Bide horrek, garaiko herriko diagonal luzeenatarikoa hartzeaz gain, eguzkiari bizkarra emanaz hegan egitea ahalbideratzen zuen, baita elizaren dorrea erreferentzia izatea ere (Ikusi 21-22. Eranskinak). Guda zela eta merkatuko plaza automobil-parke bihurtu zuteneguz, egun horretan azoka Andra Mariko portikoan egin zen. Barruan Carlos Morilla Carreño asturiarra zegoen meza eskaintzen, ironikoki Durangon errefuxiatua zegoena bere anaiaren etxean, ustez apaiza izanda Bizkaia bere jaioterria baino seguruagoa zelako (Irazabal, 2012, 127-128 orr.). Eliza gainera etorri zitzaizen fededunei, apaizari eta haren meza laguntzaile zen Rafael Cuevas-i. Azken honek gerora kontatu zuenez, Carlos Morillak otoitz egin zuen hil zen momentura arte (Gerediaga Elkarte, 2012). Bi arrazoi hauengatik, hau da, merkatu eta mezaren kausaz, biktima kopurua oso altua izan zen. Hau bera gertatu zen Jesuiten elizan, non Rafael Billalabeitia abadea eta haren elizamutilla zen Pedro Gorrotxategi Azkarate hil ziren, hainbat fededuneguz gain. Santa Susana

komentuko hamaika moja eta hauentzat lan egiten zuen neska bat ortuko txabolan ezkutatu ziren, babes bila, baina bonba batek jo eta akabatu zituen (Irazabal, 2012, 128-129 orr.). Eraikin erlijiosoak nabarmentzen ditugu suntsitutako beste egituren gainetik ez soilik biktima kopuruagatik, baizik eta baita garaiko propagandaren arabera Franco “Katolizismoaren salbatzaile” zelako (Gallastegi, 39:00-39:25). Honek arazoak ekarri zizkien altxatuei oldarra zuritzeko, eta Errepublikarrei leporatu zieten ekitaldia (Irazabal, 2001, 127 or.).

Bonbardaketa latzaren ostean hondarrak kentzeari ekin zitzaion, biktima eta zaurituen bila, anbulantziek eta Bilbotik zein beste leku batzuetatik heldutakoek ospitalera eraman zituztelarik (Irazabal, 2001, 41 or.). Arratsaldeko 5:45ean, auzokide asko goizean hildako senide eta adiskideak identifikatzeko edota lurperatzeko asmotan hilerrira zihoazelarik, berriz ere bonbardatuak izan ziren. Soriatik zetozen 8 hegazkinak, Logroñoko 15 “CR-32” ehiza-hegazkinak eskoltatuta, 100 kiloko 22 bonba eta 50 kiloko 54 bonba jaurti zituzten kanposantuko errepidetik ospitalera arte, Zeharkaletik igaroz. Gainera Durango inguruko landetan, hala nola Montorreta, Landako, edota San Roke-n, are biktima gehiago egon ziren ehiza-hegazkinak ihesean zihoazen zibilak berariaz metrailatu zituztenean. Horrez gain Durangoko geltokia eta haren tailerrak ere bonbardatuak izan ziren (Irazabal, 2012, 129 or.).

Apirilaren 2an hiru “Savoia 81” hegazkin bueltatu ziren, arratsaldeko bostak aldera, 100 kiloko 10 bonba eta 50 kiloko 36 bonba jaurtiz. Durangon ordurako jende gutxi geratzen zen, hildako gehienak suhiltzaileak eta erreskate zein hondakin-bilketa langileak izan zirelarik. Hauetaz gain sei lekaike eta hiru zerbitzari hil egin ziren, erasotzaileek ez baitzioten jaramonik egin hauek zeuden fatxadan zegoen gurutze gorriari. Aipagarria da egun horretan aurreko bonbardaketaren berri izateko helburuarekin Frantzia eta Britainia Handiko nazioarteko batzorde bat²³ zegoela Durangon, bonbardaketa honen lekuko izan zena. Hauek nazioartean salatu zuten gertatutakoa. Bi egun geroago beste ekintza bat egon zen Durangoren kontra, baina

²³ Canterbury-ko *Dean*-a zen Hewet Jhonson-ek, Londreseko Unibertsitateko Filosofia irakaslea zen Jhon Macmurray-ek, Fronte Popularreko zuzendaritzako kide zen D. R Davies-ek, idazle eta hizlari zen Margieta Beer-ek eta Londreseko *County Council*-eko kide zen Monica Whately-k osatzen zuten batzordea (Irazabal, 2001, 57 or.).

dagoeneko herria hutsik zegoen, biztanleek ihes egin baitzuten. Beraz, berriz ere, biktimak laguntza zerbitzuetakoak izan ziren (Irazabal, 2001, 55-57 orr.). Gertakizun hauek prentsa internazionalaren bidez hedatu ziren, gerra ulertzeko modu ezberdin zein krudelaz ohartaraziz, gerora eragin handikoa izango zena (Irazabal, 2012, 154 orr.). Lehen bonbardaketa alde batera utzita, guztira 14.840 tona lehergai jaurti ziren 281 bonben bidez, 336²⁴ pertsona baino gehiago akabatuz, 71 etxe suntsituz eta 234 kaltetuz, ahaztu gabe lehen aipatutako eliza eta komentuen oldarraz. Bi urte geroago egindako balorazioaren arabera, kalteak 4.239.901 pezetakoak izan ziren (Irazabal, 2007, 23 orr.).

3.4 Gerraren amaiera euskal lurretan:

Durangoren bonbardaketatik hilabete igaro baino lehen, apirilaren 26an hain zuzen ere, Italiarrek eta Kondor Legio alemaniarrek Gernika bonbardatu zuten, bomba su-eragileak erabiliz ohiko bonbez gain (Irazabal, 2001, 153 orr.). Durangon bezala, altxatuek “gorri separatistei” leporatu zieten herria suntsitzea. Errepublikako gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak hain sinbolikoa zen toki honi eta bertako zibil babesgabei egindako oldarra nazioarteko laguntza eskuratzeko propagandarako erabili zuten, bai filmen bidez (De Pablo, 2007, 629 orr.) baita egun mundu osoan ezaguna den Pablo Picasso-ren margoaren bitartez. Hala ere, dakigunez, laguntza hori ez zen inoiz iritsi, mendebaldeko europar potentzien *appeasement* politika zela eta (Mees, 2007, 533-535 orr.).

Apirilaren 28an, hainbat borroken ostean, Errepublikarrak Durangotik erretiratu behar izan zuten erreketek hauek inguratzeko zorian zeudela ikustean. Horrela, arratsaldeko zazpiak aldera, altxatuek Durango hartu zuten (Irazabal, 2012, 220-223 orr.). Maiatzean altxatuak “Burdin Harresi-ra” heldu ziren, Frantziako “Maginot Lerroa-ren” ideia jarraituz egin zena, kontuan hartu gabe gerra egiteko modua aldatu zela. Gainera harresia ez zegoen bukatuta eta ahula zen hainbat puntutan. Altxatuek ezagutzen zituzten ahulgune hauek, harresiaren obren buru zen Alejandro Goicoechea kapitaina euren bandora igaro baitzen planoekin. Azkenean, ekainaren 12an, defentsa hau apurtzea lortu zuten. EAJ-ko buruei agindua eman zitzaizen Bilboko industria suntsitzeko, altxatuek erabil ez zezaten, baina hauek ez zuten bete. Azkenean, ekainaren

²⁴ Hainbat iturbururen ikerketaren erantzuna da biktima zenbaki hau. Izan ere irabazleek, gatazka ukatu nahian, hilerriko “Ehorzketa liburuko” orriak kendu zituzten, baita ospitaleko eta erruki-etxekeo dokumentazioa desagerrarazi ere (Irazabal, 2001, 99 orr.).

19an, Bilbo ere erori zen. Lau egun geroago, lege dekretu frankista batek Bizkaiko eta Gipuzkoako kontzertu ekonomikoak bertan behera utzi zituen, ez ordea Araba eta Nafarroako berezitasun fiskalak, hauek hasieratik egon baitziren altxatuen alde (Cardona, 2007, 420-423orr.). Horrela bukatu zen Gerra Zibila Euskadin, nahiz eta Espainian honek jarraitu, jakina den bezala, beste bi urtetan. Euskal batailoi nazionalistak Santoñan errenditu arren, ezkertiarrek Iparreko Frontean jarraitu zuten hau erori arte (Garitaonandía eta De la Granja, 2007, 49 or.). Bitartean euskal lurrek frankisten errepresioa jasan behar izan zuten, batez ere ezkertiarrek, bai politikoki, bai ekonomikoki, baita sozialki ere (Barruso, 2007). Askorentzat gerra ez zen 1937an bukatu, ezta 1939an ere, baina gai horrek beste GRAL bat hartuko lukeenez, amaitutzat emango dugu atal hau.

4. Ahozko iturrien errelatoa:

“Unos meses antes... Ezkurdi... así como ahora están estos cafés, había frontón. Y ahí los durangueses jugaban... la cosa es que vinieron... un avión o dos, echaron bombas ahí, en el frontón. Y en Durango no murió nadie, ¿no? No, no creo” (Zamalloa, 24:50-25:55). Horrela gogoratzen zuen Karmele Zamalloak Durangok pairatutako lehen bonbardaketa. Laurogeita hiru urte igaro ostean bera da elkarrizketatuen artetik jazoera hau gogoan duen bakarra. Izan ere Iñaki Gorritxategi Berrizen bizi zen oraindik 1936ko irailaren 25ean, eta Juanito Gallastegik²⁵ zein M^a Carmen Areitioaurtenak ez dute martxoaren 31ko bonbardaketaren aurretiko gomutarik. Pedro Maria Monasteriok garaian 12 urte izan arren, ez du Ezkurdiko frontoiko gertaera gogoratzen (Monasterio, 1:07-1:09). Ziurrenik hurrengo urteko bonbardaketa odoltsuaren traumak aurretik egondakoaren oroitzapena ezabatu zuen. Gainera irailean hildako 12 gizonak ez ziren Durangarrak izan, horrek berriaren inpaktua leunduko zuelarik (gertutasunak *shock*-a handitzen baitu). Honi zein igarotako denborari gizakion memoriak egiten dituen hutsegiteak gehitzen badizkiogu, ez da harritzekoa 95 urteko Karmele Zamalloak ustea egun horretan ez zela biktima mortalik egon, kontrakoa jazo arren.

²⁵ Informatzaileak berak azpimarratu bezala, ez du argi bere lehen oroitzapena Durangoko martxoaren 31ko bonbardaketari buruzkoa den edo bere amaren herria zen Elorrión ikusitako hiltzera zihoazen gudarien ingurukoa, hiru urte inguruko mutiko batentzat inpaktu izugarria izan baitzuen helduak negar batean ikusteak. Edonola ere ez da iraileko bonbardaketari buruzkoa (Gallastegi, 0:30-3:32).

Bonbardaketa handia, ordea, denok dute gogoan. Karmele Zamalloaren amak astoa hartuta esnea eta ortuko produktuak saltzen zizkien Durangoko hiru bezerori bueltan ogia, egunkaria eta abar ekarriz²⁶, gerra zela eta ahalik eta azkarren egiten zuelarik joan etorria. Iritsi berria zen Iurretako baserrira Oiz txakur txikiak hegazkinak zetoze la ohartarazi zituenean. Urkiola menditik agertu ziren, gezi formazioan (Ikusi 8. Eranskina). Hasieran, harrিতuta, hegazkinak zerbait botatzen zutela ikusi zuten. Beste testiguen bezala²⁷, lehen momentuan uste izan zuten paperak zirela, baina lurrera iritsi baino lehen objektu hauek handituz joan ziren eta konturatu ziren okerraz: “¡Que no son papeles, son bombas!” (Zamalloa, 8:37-8:40). Ez zien denborarik eman ukuilura iristeko lehen bonbak eztanda egin baino lehen. Hau eta gelak banatzen zituen atepean babestu ziren, oldarra amaitu arte (Zamalloa 1:47-4:47, 9:05-10:00). Gero Durangotik jendea iristen hasi zen, batzuk ezagunak, bonbetatik ihesean landetara joan zirenak. Bidean areketara bota behar zuten euren burua, defentsa bila, hegazkinak metrailatzen baitzituzten. Hamabi urte zituen Karmelerentzat harrigarria izan zen hauen artean prakak apurtuta zeramatzan marista bat ikustea, aitzak praka berriak eman behar izan zizkiolarik. Janaria edo arropa, ahal zutena eskainiz hartu zituzten heldu-berriak etxean (Zamalloa, 12:44-16:00, 23:19-23:30).

Pedro Maria Monasteriok Andra Mariko sirena gogoan du. Ez zen entzuten zuen lehen aldia, baina bestetan abisu faltsua izan zenez hasieran ez zen kezkatu. Baina sirenak jarraitu zuen. Bonbaketariak iritsi ziren, ehiza-hegazkinak eskolatuta, eta bonbak botatzen hasi ziren: “Dana sue, dana odola, bota ta bota, ta bota ta bota...” “...ta negarra” (Monasterio, 23:38-23:44, 24:29-24:30)”. Bonbetako bat bere gainera jaurti zuten; zorionez, gutxiatik bada ere, ez zuten jo. Pedro Mariaren lagun batek irakiten zegoen ehiza-hegazkinak jaurtitako metraila ukituta atzamar-punta erre zuen, baina

²⁶ Espainian XX. mendeko 30. hamarkadan emakumeak lan-eskuaren %12,6-a besterik ez ziren, gehienetan etxeko lanen edota ezaugarri femeninoen luzapen ikusten ziren beharretan (hala nola hezkuntzan eta erizaintzan) aritzen zirelarik 25-30 urte bete eta ezkondu zein seme-alabak izan arte. Etxeko eginbeharrak eta familiaren zaintza ziren, teoriarik, emakumeen ardura pisutsua, baina egiatan estatistika mota hauetan aitortzen ez zaizkien kanpoko lanekin konplimentatu behar zuten hau, batez ere nekazal lanarekin (Pérez-Garzón, 2011, 22, 177-178 orr.). Iñaki Gorritxategiren ama dugu beste adibide bat, kasu honetan ortuko produktuak Eibarren saltzen zituelarik (Gorritxategi, 6:57-7:07).

²⁷ (Monasterio, 23:11-23:15); (Gallastegi, 16: 47- 17:34); (Gorritxategi, 3:38-4:00).

bestela etxera onik bueltatzea lortu zuten. Bertan, ordea, ez zuen fabrikan lan egiten zuen aita aurkitu, amak ere ez zekieliarik non zegoen. “Gure aittie kapritxosu zan... Durangora jun zan ikustera ze pasa dan... Gure aitte, balientie!” (Monasterio, 25:50-26:08). Hura ere bizirik atera zen.

Juanito Gallastegik hiru urte besterik ez izan arren grabatuta geratu zitzaion gertatutakoa. Aita dagoeneko lantegian zegoen eta bera amarekin gosaltzen zegoen Kaleberrian zuten etxean, bonbardaketa gehien jasan zuten kaleetako batean, alegia (Irazabal, 2001, 107 or.). Orduan zerbait entzun zuten: “...sirena edo esaten jakona, adarra jotzen ari zan baina ez zan adar jotzea” (Gallastegi, 15:17-15:25). Amarekin kalean behera korrika joan zen, Andra Mari kale amaieran familiak zuen zapatadendaren ondotik igaro, Jesuiten elizaren albotik jarraitu, trenbidea gurutzatu eta babes-leku zegoen fabrikara iritsi arte, azken zati honetan odoletan zegoen gudari batek lagundu ziolarik. Bertatik ikusi zuten bonbardaketa: “...baina klaro, horrek papelok behera jausi zirenia dana zan sue eta kriskantza... dana kea... oihuka... hautsa ta keia ta alde guztietatik... zaratia... danak bildurrez ia euren etxekoei zeozer gertatu jaken edo” (Gallastegi, 17:10-18:15). Zorionez, ez seme bakarra zen Gallastegiri ezta bere gurasoei ere ez zitzaien ezer gertatu. Etxera bidean, kasualitatez zutik geratu zena, metrailak erdibitutako animalia bat aurkitu zuten kalean, frogatuz gutxigatik egin zutela ihes. Izan ere eurak igaro eta bost minutu eskasetara hegazkinak ibilbide bera jarraitu baitzuten (Gallastegi, 15:00-20:00, 22:15-22:25).

M^a Carmen Areitioaurtena ere Kaleberrian bizi zen. Egun argitsua zen eta balkoian zegoen amarekin, hegazkinak ikusten. Baina hauek gerturatu zirenean ama beldurtu eta barrura sartu ziren: “... y entonces es cuando se puso todo negro... y aparecimos... en la otra parte de la casa casi... de la bomba (sic.) expansiva” (Areitioaurtena, 2:57-3:16). Etxetik atertzean hondakinez beteta zegoen kalea, aurreko etxea erori baitzen, jende asko hilez. Hauen artean ondoko etxeko mutikoak²⁸, sei urte zituen M^a Carmenekin

²⁸ “...los perritos con los que solíamos jugar, éramos chiquillos, en la calle, muertos, los perros. Dos amigos míos que vivían en la casa de enfrente, muertos también, Blas y eh... ¿el otro cómo era? Blas era el mayor, el pequeño... bueno dos hermanitos, que vivían enfrente de mi casa, muertos también. Hijos de Daniel Olea, y los abuelos muertos también en aquella casa” (Areitioaurtena, 18:25-19:17). Iturri bibliografikoetan agertzen den biktimen zerrenda kontrastatuz, “Daniel Olearen semeak” agertzen direla

jolastu ohi zirenak. Bideari ekinez “Reten”-era eraman zuten, gaur Antso Estegiz dena, kaletatik gertu zegoen zelai bat. Orduak egon ziren bertan, mota zuriak zituen franela arrosako pijama besterik ez zeramala, hotzez, nagusiak hegazkinak bueltatuko ote ziren beldur baitziren. Etxera itzuli ahal izan zirenean ikusi zuten honek zutik zirauen arren, zeharo hondatuta zegoela (Areitioaurtena, 1:55-5:41).

Iñaki Gorritxategi, esan bezala, Berrizen bizi zen. Egun hartan izebaren etxean zegoen, anaia-arreba eta lehengusuekin, Andikoa auzoan. Arrats argia zen eta Durango ikus zezaketen bertatik. Bostak eta erdiak aldera (17:45 Irazabal egilearen arabera; 2012, 29 or.) hegazkinak agertu zirenean izekok txabolara bidali zituen umeak, baina hauek abioiak ikusi nahi zituzten. Hirunaka zetozen, zerbait botatzen zutelarik. Beste askok bezala paperak zirela uste izan zuten, kea ikusi arren. Sei urteko umeak ez zuen imaginatu bonbardaketa bat zenik ikusi berri zuena (Gorritxategi, 2:05- 4:11).

Bonbardaketen ostean Durango hustu egin zen. Asko senideen etxe eta baserrietara joan ziren. Karmele Zamalloaren neba eta bi ahizpa nagusiak Bilbora joan ziren izeba-osabekin, beste bi ahizpa Durangoko izeba-osabekin eta bera eta bere ahizpa txikia gurasoekin Erandiora lehenengo, Sopuertara gero, gurdian ahal zuten guztia eramanda (Zamalloa, 36:00-36:45, 40:16-40:24). Beste batzuk errepresiotik ihes egin behar izan zuten, Pedro Maria Monasterioren aitak bezala, baserriko behietako bat hartuta bi hilabetez kanpoan egon zena (Monasterio, 44:00-44:35). Gipuzkoako oldarra hasi zenetik atzerrira ihes egin zuen jendea egon zen, batez ere Frantziara, baina askok nahiago izan zuten ondoko probintziara mugitzea. Altxatuak Bizkaira sartu zirenean, ordea, batez ere Gernikako bonbardaketaz geroztik, Eusko Jaurlaritzak populazio zibilaren masa-erbesteratzea prestatu behar izan zuen, bereziki Frantziara. Gehiengoa ez izan arren, emakume eta zaharrek ere bidaiatu zuten umeekin batera, nahiz eta azken hauek jaso izan duten arreta nagusia, bai garaiko bi bandoetako propagandan baita gero ikerketetan ere. “Nazionalak” Bilbora iristean azken erbesteratze fasea hasi zen, Santanderretik lehenengo eta Asturiasetik gero, Frantziako eta Britainia Handiko merkataritza-ontzietan (Alonso, 2007). M^a Carmen Areitioaurtena, Bilbon amaren

aurkituko dugu (Irazabal, 2001, 204, 2014 orr.), zehaztasun gehiagorik gabe. Beraz, kasu honetan, 82 urte igaro ostean, biktima bati identitatea bueltatu ahal izan zaio ahozko iturriei esker.

lehengusina baten etxean zegoena, bere izebekin Santanderrera ihes egin behar izan zuen azken horietakoa izan zen, eta handik Frantziara, Poitiersera alegia (Areitioaurtena, 6:41-7:45).

Propaganda frankista gertaera guzti hauek estaltzen saiatu zen. Hasieran helburu militarrek soilik bonbardatu zituztela esan bazuten ere, gerora “gorriei” leporatu zieten gertatutakoa. Historia liburuetan idatziko zuten, “los rojos separatistas, en su vergonzosa huida, incendiaron las ciudades de Irún... Durango y Guernica” (Gallastegi 28:40-28:54). Izan ere, aipatu dugunez, Francoren bandokoentzat zaila zen zibilen aurkako bonbardaketak zuritzea, batez ere kontuan izanez gero Durangon hil ziren asko elizetako igandeko mezan zeudela, apaiz eta mojak ere biktimen artean egon zirelarik. Francok Gerra Zibila Gurutzada bat bailitzan saldu zuen, “nazionalak” katolizismoaren babesle bailiran (Gallastegi, 21:34-21:45), eta beraz “gorri” eta anarkisten antiklerikalismoa erabili nahi izan zuen aitzakiatzat²⁹. Baina egia esan, euskal lurretan ez zen beste lurraldetako Elizaren aurkako mugimendurik eman orokorrean³⁰, EAJ bera alderdi katolikoa zelarik (De la Granja, 2007, 442 or.). M^a Carmen Areitioaurtenak esan bezala: “...¿Los separatistas que no tenían un avión roñoso?... ¿Y además cómo van a echar bombas a su propia casa? Eso no se le ocurre a nadie... Y luego siempre diciendo que los Republicanos habían matado monjas... ¿y vosotros no o qué?” (Areitioaurtena, 24:00-25:08).

Konfliktoaren arkeologiaren atalean aipatu bezala, gehiegikeriak gudan bi bandoetan gertatu arren³¹, ezin da ahaztu batek estatu kolpe bat eman zuela erregimen demokratiko

²⁹ Hainbatetara heldu zen propaganda ezen Gallastegik kontatzen duen nola emakume batzuk komentatu zuten bere aita preso ikustean “¡Pero si no tienen cuernos!” (Gallastegi, 34:33-34:48).

³⁰ Iñaki Gorritxategi lekuko izan zen nola bere herria zen Berrizen miliziano eta anarkistek biboteak margotu zizkieten Ama Birjina eta santuei, abadeak beldurrez kaleko arropak jantzita ibiltzen zirelarik mojetara joateko (Gorritxategi, 1:25-1:50).

³¹ Berezko biolentziaz gain- mehatxuak (Monasterio, 36:00-37:02)-, batez ere emakumeen aurkako (Zamalloa, 36:00-36:08), soldaduek baserrietakoak janaria prezio baxuan saltzera behartzen zituzten (Zamalloa, 20:10- 20:44) edota etsaiek aprobetxa ez zezaten animaliak lapurtu (Monasterio, 45:00-45:13), gizonak gerrara eramateaz gain, batez ere gazteak, alargun eta seme alabei ordaindu behar ez izateko (Monasterio 30:00-30:46, 1:19:30-1:20:20). Gainera hutsik zeuden etxeetan sartzen ziren lapurtzera. Areitioaurtenaren amari *Singer* josteko makina eta arreo lapurtu zioten, garai hartako emakumeentzat garrantzia handikoa zena urtetan zehar lantzen baitzuten. Jakin bazekiten “margaritek” zituztela haien

baten aurka, besteak hura defendatu zuen bitartean. Gainera gerra amaitu ostean ere irabazleek errepresioarekin jarraitu zuten urteetan zehar. Beldurra arma boteretsua izan zen guda garaian, bonbardaketek beraiek zein propagandak erakusten dutenez, eta horretan jarraitu zuten. Errepublikaren aldekoen aurkako atxiloketa eta fusilamenduak anitzak izan ziren, politikarekin harremana ez zutenak edota nazionalistak zirenak barne (“rojos separatistas” euren hitzetan). Aipatu dugu Monasterioren aitak ihes egin zuela, baina Gallastegiren (32:51-34:29) zein Gorritxategiren (12:15- 18:51) aitek ez zuten hainbesteko zortea izan. Hala ere biek lortu zuten kartzelatik bizirik ateratzea. Horretaz gain altxatuek “ogi zuria” iragarri arren, egiatan gerran zehar jasotako laguntza militarra Italia eta Alemaniari ordaintzearen errazionamendua egon zen hamar bat urte inguru (Monasterio, 1:23:28-1:28:45). Gabezia egoera horretan estraperloa negozio biribila bihurtu zen (Areitioaurtena, 22:07-23:00). Bitartean gizartean ere banaketa eman zen “onen” (irabazle frankistak) eta “txarren” (galtzaile errerepublikaren aldekoak³²) artean (Gallastegi, 28:13-28:26), azken hauek zailago zutelarik³³ lana edo jana aurkitzea, gaizki ikusiak izateaz gain (Monasterio, 1:01:00-1:03:31). “A una tía mía que solía ir a las colas, famosas, pues... la gente que se quedó aquí, que eran de derechas, que eran unos... piojosos, como quien dice, del barrio, pero aquellos eran los amos y aquellos le decían... ¿Ahora venís aquí? ¿Por qué no vais a Francia?... poner la boina roja y se chuleaban... los demás éramos ¡a callar!” (Areitioaurtena, 21:18- 22:01). Jazarpena hizkuntza mailan ere eman zen gure lurraldean, gaztelania zelarik hizkuntza ofizial bakarra (Gorritxategi, 23:57-24:24). Ondorioz eskoletan zigorrak jar zitzaketen euskaraz egiteagatik, eta ez hori bakarrik, izen euskaldunak “gazteleratu” ziren (Gorritxategi, 6:26-6:40). Horrek denak “konplexua” sortu zuen, euskara baserriko kontu bat bailitzan, batez ere emakumeen artean (Gallastegi, 53:00-55:47).

Bukatzeko, emakumeei dagokienez, lehenago ere aipatu dugu garai hartan gehienak etxe-ko-andreak zirela, nekazal edo ortulari lanekin konplimentatuz ahal zutenean. Etxetik kanpo lan egitekotan, eta betiere etxe-ko lanak euren gain egonez, tradizionalki

gauzak, eta Bilbora joan ziren hainbatetan hauek erreklamatzera (salbokonduktua eskatuta) (Areitioaurtena, 26:26-28:25).

³² Gauzak horrela Errepublikako dirua izatea arriskutsu bilakatu zen eta askok txanponak ezkutatu zituzten (Gorritxategi, 5:16-5:34).

³³ Gorritxategiren familiaren errota prezintatu zuten, esate baterako (Gorritxategi, 6:47-6:55).

emakumeekin lotutako lanetan jarduten zuten, hala nola erizaintzan edota zerbitzari lanetan, Areitioaurtenaren izebak bezala (16:53-17:20): “Entonces el destino de la mujer era la casa, ahora las que querían, es que no tenían dónde ponerse... una amiga mía... quiso emplearse en el banco... y no consiguió, ¡En aquel tiempo era distinto! Una mujer era una cosa exótica fuera de casa... de no ser tendera, o enfermera” (Areitioaurtena II, 1:53-2:32). Elkarrizketatutakoen artean Gallastegiren ama zen bakarra etxetik kanpo lan egiten zuena, zapata denda bat baitzuen (Gallastegi, 12:22-12:44). Gerrarekin batera egoera aldatu zen, Errepublikak emakumeentzat (eta orokorrean gizartearentzat) ekar zitzakeen aurrerapenak bertan behera utziz (Pérez-Garzón, 2011, 177 or.). Gainera guda guztietan bezala emakumeekiko biolentzia armatzat erabili zen, beldurra sorrarazteko: “... y las chicas mayores... ya sabes, con la guerra y los soldaus a las chicas les hacían lo que querían” (Zamalloa, 35:38-35:47); “esaten ebezan gauzak... “a las mujeres les cortan las tetas, a las mujeres le hacen esto, a las mujeres le hacen lo otro” bildurra sartzeko” (Monasterio, 30:30- 30:42). Gainera emakumeek, askotan bakarrik senarra kartzelan, hilda edo gerran zutelarik, aurrera atera behar izan zituzten familiak esfortzu ikaragarriak eginez: “...Gure ama geratu zan 9 seme-alabaz eta aitona 80 urtekue eta aurrera atera eban, aite kartzelan... gogorra” (Gorritxategi, 40:14-40:30). Gerra ostean emakumearen irudi tradizionala indartu zen, honen eginbeharra etxea zein familia zaintzea zelarik. M^a Carmen Areitioaurtenak gogoan du nola bere aitak nahi zuen berak eskola uztea 14 urterekin, josten ikastea baitzen garrantzitsuagoa emakume batentzat, amak esaten zuen bitartean josten eta sukaldatzen ikasteko denbora izango zuela ikasketak bukatzerakoan (Areitioaurtena, 0:49-1:25). “Y me compró mi padre con una ilusión una máquina de coser... le hice... una camisa y un pantalón, no le he visto más feliz a mi padre en toda la vida... entonces pensaría: ¡Esta es mujer de fundamento!” (Areitioaurtena II, 0:08-0:39).

5. Ondorioak

Lan honetan zehar Gerra Zibila aztertu dugu Durangon, konfliktoaren arkeologia, arkeologia feminista eta batez ere ahozko iturriak marko teorikotzat hartuta. Ikusi dugu nola gerora propaganda frankistak gertatutakoa justifikatzen saiatu zen, hasiera batean helburu militarrek oldartu zituztela esanez, “gorriei” errua botaz gero. Baina, egiatan, alde zaharrean interes militarreko elementu gutxi zeuden eta zelaietan arma gabe ihes egiten zuten zibilak berariaz metrailatu zituzten. Hori kontuan hartzen badugu agerikoa

dirudi altxatuen helburua Mola jenerala Bizkaiak amore eman ezean hau suntsitzeko egindako mehatxua betetzea zela, izua eta etsipena hedatze aldera. Italiarren, eta batez ere alemanen xedea bestelakoa zen, ordea, Gernikan frogatuko zutenez. Izan ere Göring-ek Nurembergen adierazi bezala, Espainia hurreratzen zen guda prestatzeko probalekutzat erabili zuten, Lehenengo Mundu Gerratik zetorren “Erabateko Gerra” perfekzionatuz (Irazabal, 2001, 87, 127, 147-151 orr.). Zibilek, eurentzat albo-kalteak besterik ez ziren horiek hain zuzen ere, sufritu zituzten interes arrotzen ondorio latzak: senide eta lagunen heriotzak, anputazioak, zauriak, etxe eta lantokien eraisketa, besteak beste. Kontuan izan behar dugu gerra amaitu ostean ere errepresio latza pairatu behar izan zutela, kartzelak zein arekak betez. Egoera horretan emakume askok bakarrik ikusi zuten euren burua, familia ugaria (askotan gurasoak edota anaia-arrebak eurekin bizi baitziren seme eta senarraz gain) aurrera ateratzeko gorriak jasan behar izan zituztelarik, batez ere gosea eta errazionamendua zirela eta. Izan ere, ikusi dugunez, garaian emakumearen eginbide “naturala” familia zaintzea zen gizartearen arauen arabera.

Lan honetan gertaera latz hauen benetako protagonista izan zirenei ahotsa bueltatzen saiatu gara, bizirik iraun duten pertsonen testigantzez baliatuz. Ikerketaren hasieran aurrerratu bezala, ahozko iturrien mugak eta onurak neurtzeko garaia iritsi da, berauen erabilgarritasuna aztertze aldera. Alde batetik, ezin da ukatu gizakion memoriak mugak dituela. Denbora pasa ahala guregan eragin sakona izan zuten bizipenak gogoan ditugun bitartean, beste asko ahaztu edo lausotzen zaizkigu, jazoerak nahastuz. Ildo honetan azpimarragarria da elkarrizketatutakoak 85-95 urte zituztela kontuan izanda informazio oparoa eskaini zigtela. Gainera bakoitzaren nortasunak ere eragin handia du zer eta nola gogoratzen dugun, askotan hiperbolerako edota mitifikaziorako joera erakusten dugularik: “Veintisiete kazakuek... con metralletas” (Monasterio, 23:52-24:00) (Ikusi 8. Eranskina), iturri bibliografikoen arabera 9 izan zirelarik (Irazabal, 2012, 128 or.). Beste batzuetan sentimenduek (lotsa, amorrua, beldurra...) auto-justifikaziora eraman gaitzake edo kontakizunaren manipulazio kontziente edo inkontzientera. Hala eta guztiz ere, metodologia atalean aipatu bezala, gizatasunak eragindako faktore hauek berdin-berdin aurki ditzakegu hainbat iturri idatzietan, baita materialtasuna aztertzerakoan ikerlariok hautatutako ikuspuntuan. Horregatik, iturria edonolakoa izanda ere, kontrastatzeko beharra dago beti. Gainera, ahozko iturriek besteek ematen ez diguten informazioa eskaini diezagukete, baita ikuspegi ezberdina ere. Beraz, hauek landu ostean ondoriozta dezakegu berauek erabilgarriak direla bai historiarako baita

beste diziplina batzuetarako ere, hots filologiarako (hizkuntza, onomatopeiak eta abar) edota psikologiarako (kasu honetan umeen perspektiba azter daiteke, baita grabatuen geratzen diren oroimenak edota gertakari traumatikoen ondorioak) beste hainbaten artean. Beraz berebizikoa da lehen eskuko iturri hauen garrantziaz kontzientziatzea akademian, ikerketa gehiago aurrera eramatea eta baita testigantzak jaso eta lantzeko proiektuak bultzatzea ere, iragankorrak baitira. Hau dena, noski, gerora gizarterazteko helburuarekin.

Bukatzeko azpimarratu nahi genuke memoria historikoaren inguruan, informanteen beraien iritzia. Izan ere guztiek nabarmendu zuten EGIA jakitearen garrantzia, gorroto edo mendekurik piztu gabe. Azken aldian komunikabidetan Gerra Zibilean gertatutakoa justizia egitea den edo “zauriak zabaltzea” den eztabaida hedatu den honetan garrantzitsua da gogoratzea askorentzat ebakiak ez zirela inoiz sendatu, gertatutakoaren aitormena bera ere jaso ez zutelarik. Eta hau garrantzitsua da, izan ere Gerediaga Elkartek dioenez, gogoratzea ezinbestekoa da...

... berriro gerta ez dadin.

6. Bibliografia

- Alonso Carballés, J. J. (2007). El primer exilio de los vascos, 1936-1939. *Historia Contemporánea*, 35, 683-708.
- Barruso Barés, P. (2002). Manuel de Irujo y la Guerra Civil en Guipúzcoa en el verano de 1936. *Vasconia*, 32, 63-74.
- Barruso Barés, P. (2007). La represión en las zonas republicana y franquista del País Vasco durante la Guerra Civil. *Historia Contemporánea*, 35, 653-681.
- Cardona, G. (2007). Las operaciones militares en el País Vasco: escuela de la *Luftwaffe*. *Historia Contemporánea*, 35, 411-425.
- Cruz Berrocal, M. (2010). Feminismo, teoría y práctica de una arqueología científica. *Trabajos de prehistoria*, 66 (2), 25-43.
- De la Granja Sainz, J. L. (2007). El nacimiento de Euskadi: el Estatuto de 1936 y el primer Gobierno Vasco. *Historia Contemporánea*, 35, 427-450.

- De Pablo, S. (2007). Una guerra filmada: El cine en el País Vasco durante la Guerra Civil. *Historia Contemporánea*, 35, 623-652.
- Fraser, R. (1979). Recuérdalo tú y recuérdalo a otros (I). Bartzelona, Espainia: Crítica.
- Garitaonandía, C. eta De la Granja, J.L. (Editoreak). (1987). La Guerra Civil en el País Vasco: 50 años después. Espainia: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.
- González-Ruibal, A. (2003). La experiencia del otro: una introducción a la etnoarqueología. Madril, Espainia: Akal.
- González-Ruibal, A. (2016). Volver a las trincheras: Una arqueología de la Guerra Civil Española. Madril, Espainia: Alianza Editorial.
- Irazabal Agirre, J. (2001). 1937 martxoak 31 DURANGO 31 de marzo de 1937. Espainia: Gerediaga Elkarte.
- Irazabal Agirre, J. (2007). Gerra Zibila Durangaldean 1936-1937 La Guerra Civil en el Duranguesado. Bilbo, Espainia: Gerediaga Elkarte.
- Irazabal Agirre, J. (2012). La Guerra Civil en el Duranguesado 1936-1937. Espainia: Gerediaga Elkarte.
- Mees, L. (2007). Guernica/Gernika como símbolo. *Historia Contemporánea*, 35, 529-557.
- Núñez Seixas X. M. (2007). Los nacionalistas vascos durante la Guerra Civil (1936-1939): Una cultura de guerra diferente. *Historia Contemporánea*, 35, 559-599.
- Oiarzabal, P. J. (2019ko martxoaren 14a). *¿Qué debemos saber antes de hacer una entrevista? Jornada formativa sobre historia oral*. Micaela Portilla Ikergunearen Ekitaldi Aretoan eskainitako jardunaldia.
- Pérez-Garzón, J. S. (2011). Historia del feminismo. Madril, Espainia: Catarata.
- Voss, B. L. (2000ko urria). Feminisms, Queer Theories, and the Archaeological Study of Past Sexualities. *World Archaeology*, 32 (2), 180-192.

7. Webgrafia

- Aubert, P. (2006ko urtarrila). Los intelectuales y la quiebra de la democracia: entre la Tercera República y la Tercera España. *Research Gate*. Eskuragarri: https://www.researchgate.net/publication/28210686_Los_intelectuales_y_la_quiebra_de_la_democracia_entre_la_Tercera_Republica_y_la_Tercera_Espana.
- B.O.E. (1985eko ekainaren 25a) Ley 16/1985, de 25 de junio, del Patrimonio Histórico Español. *Agencia Estatal Boletín Oficial del Estado*. Eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1985-12534>

8. Bideoak

- Gerediaga Elkartea. (2012). Durangoko bonbardaketa [DVD]. La Guerra Civil en el duranguesado 1936-1937 liburuen eranskina.

ERANSKINAK

Galderen gidoia:

GALDEREN GIDOIA				
1.- IDENTIFIKAZIOA: Izen-abizenak, jaiotze data eta ogibidea.				
2.- TESTUINGURUA/ FAMILIA: Kideak, ogibideak eta erlijio zein politikarekiko harremana.				
3.- BONBARDAKETAK: Gogoan du 1936ko irailaren 25eo lehen bonbardaketa? 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketaren kontaketa. Gogoan ditu apirilaren 2 eta 4ko bonbardaketak?				
4.- BONBARDAKETA OSTEA: Geratu edo ihes egin? (Familia-adiskide-bezero harreman sareen erabilera)				
5.- FRANKISMOA: Errepresioa: kartzela, fusilamenduak... Propaganda Euskara *EMAKUMEARI BURUZKO INFORMAZIOA JASO GALDERA BAKOITZETIK				

1. Eranskina: Galderen gidoiaren taula. Iturria: Egilearena.

Informanteen fitxak:

Oharra: Fitxetan agertzen den erregistroen erreferentzia dokumentuen izenari dagokio. Hurrengo eran dago osatuta: Erregistro mota (E: Elkarrizketa edo A: Atxikia), gidoia (-), data (urtea, hilabetea eta eguna bereizketarik gabe) edo zenbakitzea (01) atxikien kasuan, behe marra (_) eta informantearen abizena. Hots, “E-20190326_Zamalloa”.

Dokumentu bat baino gehiago egoteko kasuan dataren ostean eta behe marra baino lehen gidoia (-) eta zenbakia ageri dira. Hots, “E-20190403-01_Areitioaurtena”.

Iker lanean zehar erregistroak zitatzean ondorengo metodologia erabili da:

- Ahozko grabazioen kasuan, informantearen abizena eta grabazioaren minutuak parentesi artean. Hots, (Zamalloa, 24:50-25:55).
- Ahozko grabazioen kasuan, dokumentu bat baino gehiago badaude, informantearen abizena, zenbakia erromatarrez eta grabazioaren minutuak parentesi artean. Hots, (Areitioaurtena II, 1:53-2:32).
- Eranskinen kasuan “Ikusi X. eranskina” formula erabili da parentesien artean, non X eranskinaren zenbakia den. Hots, (Ikusi 2. Eranskina).

INFORMAZIO METODOLOGIKOA	Informantearen identifikazioa	<u>Izen- Abizenak:</u> <u>Jaiotze data:</u> <u>Generoa:</u> <u>Lanbidea:</u>
	Testuingurua	<u>Elkarrizketaren lekua:</u> <u>Data:</u> <u>Iraupena:</u> <u>Erregistroaren kodea:</u> <u>Ahotsa:</u> <u>Argazkia:</u> <u>Atxikiak:</u>

GAIKAKO INFORMAZIOA	Informantea garaian	<u>Familia kideak:</u> <u>Lanbideak:</u> <u>Egoera politikoa:</u> <u>Egoera erlijiosoa:</u> <u>Ikasketak ez/bai eta non:</u>
	Bonbardaketa aurreko egoera	<u>Egunerokotasuna:</u> <u>Beldurra?</u>
	Bonbardaketa	<u>Non:</u> <u>Norekin:</u> <u>Zer egiten:</u> <u>Lehen inpresioa:</u> <u>Lehen bonbardaketa:</u> <u>Goizekoa vs arratsaldekoa:</u> <u>Apirilaren 2ko eta Apirilaren 4ko bonbardaketak:</u> <u>Informazio gehigarria:</u>
	Bonbardaketa ostea	<u>Kalteak (Etxea...):</u> <u>Biziraupena (Nora...):</u> <u>Nola aldatu zen egunerokotasuna:</u>
	Gerraostea	<u>Errazionamendua, errepresio, euskara...</u>
	Pertsonala	<u>Oroitzapen biziena:</u> <u>Memoriarekiko iritzia:</u>

2. Eranskina: Informanteen fitxaren eredu. Iturria: Egilearena.



INFORMAZIO METODOLOGIKOA	Informantearen identifikazioa	<u>Izen- Abizenak:</u> Miren Karmele Zamalloa Zarate. <u>Jaiotze data:</u> 1923ko uztailaren 17 a. <u>Generoa:</u> Emakumea. <u>Lanbidea:</u> Etxeko-andrea.
	Testuingurua	<u>Elkarrizketaren lekua:</u> Informantearen etxea. <u>Data:</u> 2019ko martxoaren 26a. <u>Iraupena:</u> 1:05:06. <u>Erregistroaren kodea:</u> <u>Ahotsa:</u> E-20190326_Zamalloa. <u>Atxikiak:</u> --

<p>GAIKAKO INFORMAZIOA</p>	<p>Informantea garaian</p>	<p><u>Familia kideak:</u> Ama, aita, neba (Ignacio) eta bost ahizpa. <u>Lanbideak:</u> Ama baserrian zein esnea saltzen, aita igeltseroa. <u>Egoera politikoa:</u> Bozka nazionalista. <u>Egoera erlijiosoa:</u> Katolikoak. <u>Ikasketak ez/bai eta non:</u> Iurretako eskolan 13 urtera arte.</p>
	<p>Bonbardaketa aurreko egoera</p>	<p><u>Egunerokotasuna:</u>-- <u>Beldurra?</u> Errepublikarrekin kontaktuan egon ziren, hauek janaria prezio baxuan salarazten zietelarik. Baina min egingo zieten arriskua existitu arren, ez zen halakorik gertatu.</p>
	<p>Bonbardaketa</p>	<p><u>Non:</u> Iurretako baserrian. <u>Norekin:</u> Amarekin (eta agian beste familia kideekin ere). <u>Zer egiten:</u> -- <u>Lehen inpresioa:</u> Paperak zirela. <u>Lehen bonbardaketa:</u> Gogoan du Ezkurdiko frontoian erori zen bonba, baina ez biktimak egon zirela. <u>Lehena vs arratsaldekoa:</u> -- <u>Apirilaren 2ko eta Apirilaren 4ko bonbardaketak:</u> -- <u>Informazio gehigarria:</u></p>

		<p>Txakurrak hegazkinak igartzen omen zituen. Ate baten azpian babestu ziren. Durangotik ihesi zetozenak hegazkinek metrailatu bitartean hartu zituzten etxean.</p>
	<p>Bonbardaketa ostea</p>	<p><u>Kalteak (Etxea...):</u> Sopuertatik bueltatzean aurreko aldean, gurasoen gelaren hormaren kanpoaldean, zulo bat aurkitu zuten. Gainera etxea zikinkeriaz beteta zegoen: tropek utzitako latak, hondakinak</p> <p><u>Biziraupena (Nora...):</u> Ardo saltzaileak ziren osaben kontaktu sarea profitatuz lehenengo Erandiora eta Sopuertara gero.</p> <p><u>Nola aldatu zen egunerokotasuna:</u> Durangoko Andra Mari eta Jesuiten elizak hondatu zirenez meza ermitetan eman behar izan zuten denbora luzez, Goiurian edo Garaizan, txandakatuz.</p>
	<p>Gerraostea</p>	<p><u>Errazionamendua, errepresioa, euskara...</u> Ortu eta nekazaritzari esker goserik ez, baina errazionamendua sufritu (ogi beltza).</p>

	<p>Pertsonala</p>	<p><u>Oroitzapen biziena:</u> Errepikapenak irizpidetzat hartuz gero badirudi bi direla bizikien dituen irudiak: lehena Oiz txakurtxo zaunka, hegazkinak zetozela ohartaraziz; bigarrena metraila saihestearren prakak apurtuta zituen maristaren gomuta, bere etxerantz korrika.</p> <p><u>Memoriarekiko iritzia:</u> “No se lo deseo a nadie”; “La guerra es lo último... ¿No podrán entenderse, de una forma o de otra?”</p>
--	--------------------------	--

3. Eranskina: *Karmele Zamalloaren fitxa. Iturria: Egilearena.*



INFORMAZIO METODOLOGIKOA	Informantearen identifikazioa	<u>Izen- Abizenak:</u> Pedro Maria Monasterio Alberdi. <u>Jaiotze data:</u> 1924ko otsailaren 5°. <u>Generoa:</u> Gizona. <u>Lanbidea:</u> Mendizabal enpresan 30 urtez, ondoren bi urte eta erdi ONA enpresan bigilante beharretan eta bukatzeko EITB-n sei urtez, bigilante lanean honetan ere.
-------------------------------------	--	---

	Testuingurua	<u>Elkarrizketaren lekua:</u> Informantearen etxea. <u>Data:</u> 2019ko martxoaren 26a. <u>Iraupena:</u> 1:45:47. <u>Erregistroaren kodea:</u> <u>Ahotsa:</u> E-20190326_Monasterio. <u>Atxikiak:</u> A-01_Monasterio.
--	---------------------	--

GAIKAKO INFORMAZIOA	Informantea garaiari	<u>Familia kideak:</u> Ama, aita eta bederatzi urte gazteagoa zen arreba. <u>Lanbideak:</u> Ama etxeko-andrea eta aita fabrikari. <u>Egoera politikoa:</u> EAJ bozka. <u>Egoera erlijiosoa:</u> Katolikoak. <u>Ikasketak ez/bai eta non:</u> Maristetan.
	Bonbardaketa aurreko egoera	<u>Egunerokotasuna:</u> Eskolara joaten zen nahiz eta gerra piztu zenetik tentsio egoera orokortu. <u>Beldurra?</u> Bai. Zer gertatuko ote zen pendiente, ezjakitun. Jendea baserrietara joaten zen hegazkinei, bonbardaketari, emakumeen aurkako biolentziari eta abarri beldur baitzioten.
	Bonbardaketa	<u>Non:--</u>

	<p><u>Norekin:</u> Lagunekin.</p> <p><u>Zer egiten:</u> --</p> <p><u>Lehen inpresioa:</u> Sirenaren hotsa. Bonbak paperak zirela uste izan zuen hasieran.</p> <p><u>Lehen bonbardaketa:</u> Ez du gogoratzen.</p> <p><u>Goizekoa vs arratsaldekoa:</u> --</p> <p><u>Apirilaren 2ko eta Apirilaren 4ko bonbardaketak:</u> --</p> <p><u>Informazio gehigarria:</u> --</p>
Bonbardaketa ostea	<p><u>Kalteak (Etxea...):</u> Ez.</p> <p><u>Biziraupena (Nora...):</u></p> <p>Iurretako baserrian geratu.</p> <p><u>Nola aldatu zen egunerokotasuna:</u> Aitak bi hilabetez ihes egin behar izan zuen.</p>
Gerraostea	<p><u>Errazionamendua, errepresioa, euskara...</u></p> <p>“Rojos separatistas” ziren aitzakiapean ez zioten utzi lan poltsan izena ematen.</p> <p>Errazionamendua hamar urtez pairatu zuen, baina baserriko barazki eta animaliei esker goserik ez.</p>
Pertsonala	<p><u>Oroitzapen biziena:</u> Sirenen hotsa eta, noski, hegazkinak bonbak botatzen.</p> <p><u>Memoriarekiko iritzia:</u></p> <p>Gertatutakoa izugarria izan zen, burua ondo izan bitartean</p>

ahaztu ezingo duena. Eta,
berandu izan arren, jendeak
jakin behar du gertatutakoa.

4. Eranskina: Pedro Maria Monasterioren fitxa. Iturria: Egilearena.



INFORMAZIOMET ODOLOGIKOA	Informantearen identifikazioa	<u>Izen- Abizenak:</u> Juan Bizente Gallastegi Duñabeitia. <u>Jaiotze data:</u> 1933ko urriaren 27 ^a . <u>Generoa:</u> Gizona. <u>Lanbidea:</u> Apaiza.
	Testuingurua	<u>Elkarrizketaren lekua:</u> Informantearen etxea. <u>Data:</u> 2019ko martxoaren 29 ^o . <u>Iraupena:</u> 1:24:06. <u>Erregistroaren kodea:</u> <u>Ahotsa:</u> E-20190329_Gallastegi. <u>Atxikiak:</u> --

<p>GAIKAKO INFORMAZIOA</p>	<p>Informantea garaian</p>	<p><u>Familia kideak:</u> Ama eta aita. Seme bakarra.</p> <p><u>Lanbideak:</u> Amak zapata-denda bat zuen, aitak lantegian egiten zuen lan hau utzi eta dendan lan egiten hasi arte.</p> <p><u>Egoera politikoa:</u> Bozka abertzalea.</p> <p><u>Egoera erlijiosoa:</u> Katolikoak.</p> <p><u>Ikasketak ez/bai eta non:</u> Lau urterekin, bonbardaketa ostean, Komentu kaleko moja agustindarren eskolan. Ondoren jesuitetan, akademia batean gero eta bukatzeko Comilasen.</p>
	<p>Bonbardaketa aurreko egoera</p>	<p><u>Egunerokotasuna:</u> --</p> <p><u>Beldurra?</u> --</p>
	<p>Bonbardaketa</p>	<p><u>Non:</u> Kaleberriko etxean.</p> <p><u>Norekin:</u> Amarekin.</p> <p><u>Zer egiten:</u> Gosaltzen.</p> <p><u>Lehen inpresioa:</u> Sirena.</p> <p><u>Lehen bonbardaketa:</u> Ez du gogoan.</p> <p><u>Goizekoa vs arratsaldekoa:</u> Ez du gogoan.</p> <p><u>Apirilaren 2ko eta Apirilaren 4ko bonbardaketak:</u> 2koa Arrianditik ikusi zuen bera baino 10 urte helduagoa zen osabarekin. 4koa gertatu zenean jada Ibarrurin zegoen,</p>

		<p>non bere familiak Gernikakoa sumatu baitzuten.</p> <p><u>Informazio gehigarria:</u> --</p>
	<p>Bonbardaketa ostea</p>	<p><u>Kalteak (Etxea...):</u> Kalte gehien jaso zuen kaleetariko batean egon arren, zutik geratu zen eraikina, kasualitatez.</p> <p><u>Biziraupena (Nora...):</u> Arriandira lehenengo, aitaren gurasoen etxera, Ibarrurira gero, amaren aitaren herria alegia (familia-sareak).</p> <p><u>Nola aldatu zen egunerokotasuna:</u> Aita Miranda de Ebro-ko kontzentrazio esparrura eraman zuten.</p>
	<p>Gerraostea</p>	<p><u>Errazionamendua, errepresioa, euskara...</u></p> <p>Propaganda izugarria sufritu behar izan zuten, batez ere bonbardaketa gorrien errua izan zela zioena.</p> <p>Euskarak ofizialtasunetik at geratu zen, zeharo desprestigiatuta.</p> <p>Errazionamendua sufritu zuten, baina dendarri esker goserik ez.</p>
	<p>Pertsonala</p>	<p><u>Oroitzapen biziena:</u> Elorrioko gudariak, kalean ikusitako erdibitutako animalia eta babestokira heltzen lagunduzion zauritutako gudaria.</p> <p><u>Memoriarekiko iritzia:</u> Egia</p>

dena egia da, eta hau jakin egin behar da, inolako gorrotorik piztu gabe.

5. Eranskina: Juanito Gallastegiren fitxa. Iturria: Egilearena.



INFORMAZIO METODOLOGIKOA	Informantearen identifikazioa	<u>Izen- Abizenak:</u> Iñaki Gorritxategi Alberdi. <u>Jaiotze data:</u> 1931ko otsailaren 12 a. <u>Generoa:</u> Gizona. <u>Lanbidea:</u> Maisutza industrial.
	Testuingurua	<u>Elkarrizketaren lekua:</u> Informantearen etxeko txokoan. <u>Data:</u> 2019ko apirilaren 2a. <u>Iraupena:</u> 1:42:43. <u>Erregistroaren kodea:</u> <u>Ahotsa:</u> E-20190402_Gorritxategi.

		<u>Atxikiak:</u> A-01_Gorritxategi.
--	--	--

GAIKAKO INFORMAZIOA	Informantea garaian	<u>Familia kideak:</u> Ama, aita, 80 urteko aitona eta 8 anai-arreba. <u>Lanbideak:</u> Amak ortuko generoa Eibarren saltzen zuen eta aitak bide bat egiten eta ondoren janaria banatzen. <u>Egoera politikoa:</u> Nazionalistak, batzokian ere ibiliak. <u>Egoera erlijiosoa:</u> Katolikoak. <u>Ikasketak ez/bai eta non:</u> Berrizeko mutil eskolan lehenengo, gero maisutza industrialara Durangon.
	Bonbardaketa aurreko egoera	<u>Egunerokotasuna:</u> -- <u>Beldurra?</u> Milizianoekin bizi behar izan zuten Berrizen, elizako santu eta Ama Birjina margotu zituztenak, apaizak beldurtuz.
	Bonbardaketa	<u>Non:</u> Andikoan, izebaren etxean. <u>Norekin:</u> Familiarekin. <u>Zer egiten:</u> -- <u>Lehen inpresioa:</u> Paperak zirela. <u>Lehen bonbardaketa:</u> -- <u>Goizekoa vs arratsaldekoa:</u> Arratsaldekoa ikusi zuen.

	<p><u>Apirilaren 2ko eta Apirilaren 4ko bonbardaketak:</u> --</p> <p><u>Informazio gehigarria:</u> --</p>
Bonbardaketa ostea	<p><u>Kalteak (Etxea...):</u> --</p> <p><u>Biziraupena (Nora...):</u> Ez zen Durangon bizi.</p> <p><u>Nola aldatu zen egunerokotasuna:</u> --</p>
Gerraostea	<p><u>Errazionamendua, errepresioa, euskara...</u></p> <p>Errota prezintatu zieten, amari Eibarrera joateko salbokonduktua kendu eta aita atxilotu heriotza zigorra ezarriz (nahiz eta lortu zuen salbatzea). Euskaraz berba egiteagatik zigorrak. Iñakiri izena aldatu zioten, "Ignacio" deituz.</p> <p>Mezara joatea beharrezko bihurtu zen.</p>
Pertsonala	<p><u>Oroitzapen biziarena:</u> --</p> <p><u>Memoriarekiko iritzia:</u> Gazteek informazio falta dute eta kontatu behar zaie gertatutakoa.</p>

6. Eranskina: Iñaki Gorritxategiren fitxa. Iturria: Egilearena.

INFORMAZIO METODOLOGIKOA	Informantearen identifikazioa	<u>Izen- Abizenak:</u> Mari Carmen Areitioaurtena Murua. <u>Jaiotze data:</u> 1930eko abuztuaren 8a. <u>Generoa:</u> Emakumea. <u>Lanbidea:</u> Etxeko-andrea.
	Testuingurua	<u>Elkarrizketaren lekua:</u> Informantearen etxea. <u>Data:</u> 2019ko apirilaren 3a. <u>Iraupena:</u> 41:36. <u>Erregistroaren kodea:</u> <u>Ahotsa:</u> E-20190403- 01_Areitioaurtena. E-20190403- 02_Areitioaurtena. <u>Argazkia:</u> -- <u>Atxikiak:</u> --


GAIKAKO INFORMAZIOA	Informantea garaian	<u>Familia</u> <u>Kideak:</u> Ama eta aita eta meningitisak oso txikitan hil zuen neba nagusia. <u>Lanbideak:</u> Ama etxeko-andrea eta aita doitzailea. <u>Egoera politikoa:</u> -- <u>Egoera erlijiosoa:</u> -- <u>Ikasketak ez/bai eta non:</u> Bai, monjetan 18 urte bete arte.
	Bonbardaketa egoera aurreko	<u>Egunerokotasuna:</u> -- <u>Durango:</u> --

	<u>Beldurra?</u> --
Bonbardaketa	<p><u>Non:</u> Kaleberriko etxean</p> <p><u>Norekin:</u> Amarekin</p> <p><u>Zer egiten:</u> Hegazkinak ikusten</p> <p><u>Lehen inpresioa:</u> Belztasuna</p> <p><u>Lehen bonbardaketa:</u> --</p> <p><u>Goizekoa vs arratsaldekoa:</u> --</p> <p><u>Apirilaren 2ko eta Apirilaren 4ko bonbardaketak:</u> --</p> <p><u>Informazio gehigarria:</u> --</p>
Bonbardaketa ostea	<p><u>Kalteak (Etxea...):</u> Zutik baina leiho eta atea aterata eta hondatuta</p> <p><u>Biziraupena (Nora...):</u> Bilbora lehenengo, amaren lehengusina baten etxera (familia-sarea), Santanderrera ondoren Frantziarako itsasontzia hartzeko. Behin helmugara iritsita tren batean Poitiersera eraman zituzten.</p> <p><u>Nola aldatu zen egunerokotasuna:</u> Aita berriro lanean har zezaten urte bat baino gehiago itxaron behar izan zuten, gainera margaritek Kaleberriko etxetik Singer makina eta amaren arrea lapurtu zizkieten. Baina hori kenduta bizitza normala, politikan sartu gabe.</p>
Gerraostea	<u>Errazionamendua, errepresioa, euskara...</u> Errazionamendua,


		<p>ilarak eta estraperloa sufritu zituen. Jaten ez zuenez amak marmelada eta gurina eskuratzen saiatzen zen gosez hil ez zedin.</p>
	<p>Pertsonala</p>	<p><u>Oroitzapen biziarena:</u> Bonbardaketaren belztasun eta hondakinak zein txikitan harekin jolasten ziren laguntxoaren heriotza.</p> <p><u>Memoriarekiko iritzia:</u> Jendeak gertatutakoa jakin behar du.</p>

7. Eranskina: M^a Carmen Areitioaurtenaren fitxa. Iturria: Egilearena.

Informanteek eskaintako materialak:



8. Eranskina. Marrazkia: Bonbaketariak eta ehiza-hegazkinak. Iturria: Egilearen argazkia. Pedro Maria Monasteriok marraztua.



9. Eranskina. Dokumentua: Iñaki Gorritategiren aitaren eta beste sei gizonen askatasun agiria. Iturria: Egilearen argazkia. Iñaki Gorritategik eskainia.


Durango, atzo eta gaur:



10. Eranskina. Irudia: Ezkurdiko pilotalekua 1936an, iraileko bonbardaketa baino lehen. Iturria: Irazabal, 2007, 6 or.



11. Eranskina. Irudia: Ezkurdi Plaza 2019an. Pilotalekua zenaren aurreko paretaren noranzkoan ateratako argazkia. Iturria: Egilearen argazkia.



12. Eranskina. Irudia: Ezkurdi pilotalekuaren aztarna 2019an. Oroimenerako berariaz utzitako pilotalekuaren atzealdeko horma zatia, memoriarako plaka ikus daitekeelarik. Iturria: Egilearen argazkia.



13. Eranskina. Irudia: Metraila aztarnak Ezkurdi pilotalekuan 2019an. Iturria: Egilearen argazkia.



14. Eranskina. Irudia: Andra Mariko elizpea 1937an (I). Iturria: Irazabal, 2001, 257 or.



15. Eranskina. Irudia: Andra Mariko elizpea 1937an (II). Iturria: Irazabal, 2001, 256 or.



16. Eranskina. Irudia: Andra Mariko elizpea 1937an (III). Bonbardaketaren 82. urteurrenagatik Andra Mari elizan eginiko “Irudi izoztuak vs izoztutako irudiak” argazki erakusketa. Iturria: Egilearen argazkia.



17. Eranskina. Irudia: Andra Mariko elizpea 2019an (I). Iturria: Egilearen argazkia.



18. Eranskina. Irudia: Andra Mariko elizpea 2019an (II). Iturria: Egilearen argazkia.



19. Eranskina. Irudia: Kaleberria 1937an. Iturria: Irazabal, 2001, 265 or.



20. Eranskina. Irudia: Kaleberria 2019an. Iturria: Egilearen argazkia.

Bonbardaketaren argazkia:



21. Eranskina. Irudia: Italiar aire-argazkia. 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketa, goizeko 8:26tan. Iturria: Irazabal, 2012, 137 or.

ELEMENTOS DE INTERÉS ESTRATÉGICO	SECUENCIA
C VÍA DE LOS FERROCARRILES VASCONGADOS BILBAO - SAN SEBASTIÁN	Las bombas alcanzan el convento e iglesia de Santa Susana 1 ; las casas de Kalebarria en su intersección con Santa María 2 ; las de la calle Santa María 3 ; la propia iglesia y pórtico de Santa María 4 , el mercado municipal 5 utilizado como garaje por el batallón de automovilismo y las casas sitas al inicio de la calle Santa María 6 junto al puente sobre el río de Mañaria. La otra línea de bombardeo afecta a las campos y huertas 7 donde hoy día está la avenida Montevideo. El bombardeo aún no ha llegado a la plaza de Ezkurdi donde se sitúa el batzoki 8 de EAJ/PNV
E CARRETERA A OTXANDIO Y FRENTE DE ARABA	
F PUENTE DEL FERROCARRIL SOBRE EL RÍO MAÑARIA	
G FUNDICIONES Y TALLERES OLMA	
H ESTACIÓN DEL FERROCARRIL DE DURANGO	
I HOSPITAL DE DURANGO	
J PALACIO ETXEZARRETA, HOY DÍA MUSEO DE ARTE E HISTORIA, HABILITADO COMO HOSPITAL	

22. Eranskina. Irudia: Italiar aire-argazkiaren indizea. Iturria: Irazabal, 2012, 136 or.

Oroimen ekitaldia³⁴:



23. Eranskina. Irudia: Oroimen ekitaldia. Iturria: Egilearen argazkia.



24. Eranskina. Irudia: Ohorezko dantza. Kriskitin taldeak eskainia. Iturria: Egilearen argazkia.

³⁴ 2019ko martxoaren 31an, igandea, arratsaldeko 20:00etan Andra Mari elizpean eginikoa, bonbardaketaren 82. urteurrenaren omenez.



25. Eranskina. Irudia: Mari Ardanzaren lore eskaintza. Iturria: Egilearen argazkia.



26. Eranskina. Irudia: Bonbardaketaren kantuarren bertsioa. Abeslaria: Idoia Bediaga, Mari Ardanzaren biloba. Iturria: Egilearen argazkia.



27. Eranskina. Irudia: **“GOGORATU, BERRIRO GERTATU EZ DADIN”**. 2019ko martxoaren 31an Durangoko Andra Mariko elizpean eginiko “Bonbardaketan hildakoei oroimen ekitaldia-n” Gerediaga Elkarteak proiektatutako “Aztarnak” bideo laburraren argazkia. Iturria: Egilearen argazkia.

CD-ko audio eranskinen zerrenda:

ZKIA	INFORMANTEA	IZENBURUA	ERREFERENTZIA	DENBORA TARTEA
1°	Karmele Zamalloa	Lehen bonbardaketa	E-20190326_Zamalloa	24:46-25:17
2°	Karmele Zamalloa	Bonbardaketa Handia	E-20190326_Zamalloa	8:36-9:26
3°	Pedro Maria Monasterio	Bonbardaketa Handia II	E-20190326_Monasterio	23:00-26:10
4°	Juanito Gallastegi	Bonbardaketa Handia III	E-20190329_Gallastegi	15.03-21:52
5°	Iñaki Gorritxategi	Bonbardaketa Handia IV	E-20190402_Gorritxategi	2:05-4:11
6°	Mª Carmen Areitioaurtena	Bonbardaketa Handia V	E-20190403-01_Areitioaurtena	1:56-5:54
7°	Juanito Gallastegi	Ume baten ikuspegia	E-20190329_Gallastegi	24:39-25:08
8°	Mª Carmen Areitioaurtena	Gomuta Biziena	E-20190403-01_Areitioaurtena	18:28-19:39

9°	Juanito Gallastegi	Apirilak 2ko bonbardaketa	E-20190329_Gallastegi	21:49-24:36
10°	M ^a Carmen Areitioaurtena	Santanderretik Frantziara	E-20190403-01_Areitioaurtena	6:42-16:33
11°	Juanito Gallastegi	Aitaren atxiloketa	E-20190329_Gallastegi	32:08-34:47
12°	Iñaki Gorritxategi	Aitaren atxiloketa eta honen lehengusuaren fusilamendua	E-20190402_Gorritxategi	12:15-18.51
13°	Iñaki Gorritxategi	Milizianoak elizan	E-20190402_Gorritxategi	1:24-1:50
14°	Karmele Zamalloa	Prezio baxuan salarazten	E-20190326_Zamalloa	20:10-44
15°	M ^a Carmen Areitioaurtena	Margaritek ostutakoa	E-20190403-01_Areitioaurtena	26:26-28-29
16°	M ^a Carmen Areitioaurtena	Francoren iruzurrak	E-20190403-01_Areitioaurtena	24:14-25:09
17°	Juanito Gallastegi	Propaganda eskolan	E-20190329_Gallastegi	28:08-30:57
18°	M ^a Carmen Areitioaurtena	Zatiketa Gizartean	E-20190403-01_Areitioaurtena	21:18-22:02

19°	Iñaki Gorritxategi	Euskara	E-20190402_Gorritxategi	23:57-24:18
20°	M ^a Carmen Areitioaurtena	Emakumeen egoera	E-20190403-02_Areitioaurtena	00:08-2:32

28. Eranskina: CD-ko audioen zerrenda.